

Irañetako euskara

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON*

Sakana haranean euskara bizirik duten herrien artean muga egiten du Irañetak ekialdetik. Arbaso euskaldunen hizkerari eutsi dion azken herria dugu, beraz, orain arte Arakil aldean, Ihabarren duela urte gutxi batzuk hil baitzen azken hiztuna. Gainera, ez dugu batere osasun onean, bizirik baino ez dagoeneko, Irañetako hizkera eta bere mendebaldeko aldameneko herrikoak ere, Uharte Arakilgoak, antzeko egoera erakusten du. Hiztun urri eta adin handikoak ditugu egun erabiltzen duten bakarrak. Irañetak laurogei biztanle inguru dauzka eta, horietatik, bospasei baino ez dira bertako hizkera baliatzen dutenak. Gainerakoan artean, gazteek euskara batua ikasi dute eta besteak erdaldun elebakarrak ditugu.

Gauzak horrela, eta kontuan izanik Uharte Arakilgoa *Sakana erdialdeko euskara* doktore tesian aztertu nuela animatu naiz, hurrengo urteotan, seguru asko, galduko den hizkera honen ezaugarriak jasotzera, hiztun trebeak oraindik badirela aprobetxatuz.

Hiztun trebe horietako bat izan da nik baliatu dudana *irinteraren* ezaugarriak jaso eta aztertzeko. **Timoteo Beraza Goldarazena** erakutsi dizkit, ederki erakutsi gainera, hizkera dotore honen xehetasunak, bere 82 urteak (1922ko apirilaren 18an jaio zen) ez baitira oztopo izan haur eta gazte denboran bereziki erabilitako hizkeraren nondik norakoak azaltzeko.

Eta Timoteok esandakoez gain, orain arte irinteraren inguruan eginiko beste lan batzuk ere izan ditut kontuan, hala nola, *Erizkizundi Irukoitzak* (EI lanean) Irañetan jasotako emaitzak, Lakuntzan erretore moduan XIX. mendearen erdialdean izan zen Juan Miguel Gastesi *irintarraren* sermoiak (Gastesiaren sermoiak), Sakanako Ahozko Tradizioa (SAT) lanean bildutako grabaketak eta, azkenik, Euskal Herriko Atlas Etno-linguistikoan (EAEL II, 169¹) jasotakoak ere bai.

* Euskal filologian doktorea

¹ Bertan Jose Armendariz 85 urteko irintarrari, 1985 urtean, egindako grabaketa ageri da.

EZAUGARRI FONETIKO-FONOLOGIKOAK.
BOKALISMOARI DAGOKION EZAUGARRIAK

- *Lexema bukaerako bokala eta mugatzailea elkartzerakoan sortzen diren burutzapenak:*

-a + -a(k) > a(k)

Sakana erdialde osoan bezala burutzen dira *-a* organikoa duten hitzak, mugatzailea eransten zaienean: *giterra(k)*, *festa(k)*, *banda(k)*, *arropa(k)*, *neska(k)*, *gerra(k)*, *auskera(k)*, *denbora(k)*, *alaba(k)*, *meza(k)*, ...

-e + -a(k) > -ie(k) diptongazioa

Sakana erdialdeko Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan eta Uhartan bezala, lexema *-e* bokalaz bukatzen denean, mugatzailea eransterakoan, aipatu bokala itxi eta mugatzailea asimilatu egiten du, kontuan izan gabe morfema mugatzailea singularra edo plurala denentz (Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun soilik morfema plurala denean asimilatzen dute mugatzailearen bokala): *semie(k)*, *itxie(k)*, *luzie(k)*, *urtie(k)*, *lezie(k)*, *trastie(k)*, *belie(k)*, ...

Gastesik (1987) ere, modu sistematikoan azaltzen ditu horrelako burutzapenak: *Dignidadieren*, *hizatiere*n, *pensatcie*, *vicie*, *felicidadieren*, *batien*, *diligenciequi*, *nombriec*, *lurrien*, *contatcie*, *miserablie*, *diligencie*, *ateratcie*, *illzalie*, *gaubien*, ... Eta, behin baino ez bada ere, bokal irekia asimilatu gabe azaltzen duen hitza idatzi zuen: *mortalian*.

EAELen ere ugari dira horrelako burutzapenak: *zalkie*, *sardiez*, *alien*, *malien*, *azie*, *floriek*, ...

-i + -a(k) > -iye(k)

Lexema *-i* bokalaz amaitzen denean, mugatzailea eransterakoan [j] sabai-ko igurzkari ahostunaren epentesia eta mugatzailearen asimilazioa suertatzen dira lehentxeago aipatu eremuan bezalaxe: *mendiye(k)*, *idiye(k)*, *begiye(k)*, *ardiye(k)*, *ziriye(k)*, *arriye(k)*, *erriye(k)*, *burniye(k)*, *zaizuriye*, *zorriye*, *auliye*, *buruaundiye*, ...

Gastesiren sermoietan *-i + -a > -ie* bilakabidea ageri da behin baino gehiagotan: *negargarrie*, *icaragarrie*, *vicie*, *andie*, ... Eta baita, behin gutxienez, mugatzailea asimilatu gabe: *misiolaria*. EAELen ere ez dute igurzkaria tar-tekatzen: *garie*, *txerriekin*, *idiek*, ...

-o + -a(k) > -ua(k)/-ue(k) diptongazioa

Lexema *-o* bokalaz bukatzen denean, bi joera erakusten ditu Irañetako euskarak: bata, lexemaren azken aurreko silabako bokala itxia denean, lexemaren azken bokala itxi eta mugatzailearen bokala asimilatu; bestea, aipatu azken aurreko silabako bokala itxia ez denean, ez du asimilatzen mugatzailearen bokala: *mandua(k)*, *fagua(k)*, *goxua(k)*, *basua(k)*, *ollua(k)*, *jitue(k)*, *listue(k)*, *zulue(k)*, *pisue(k)*, ...

Gastesiren sermoietan sistematikoki ageri da disimilatu gabe eta soilik behin erreparatu diogu egungo bilakabidearen ereduari jarraitzen dion burutzapenari: *Destinoa*, *preciosoa*, *precioa*, *Jaungoicoac*, *baliosoa*, *Amorosoac*, *Divinoaren*, *preciosisimoa*, *Palacioan*, *proceso*, *Caballeroa*, ... Baina *ermanuen*.

-u + -a(k) > -ue(k) diptongazioa

Ez da kontsonante ezpainetako herskari ahostunaren epentesia gertatzen (Sakana erdialde osoan eta Burundan berriz bai) Irañetako hizkeran *-u* bokalaz amaituriko lexemari mugatzailea eransten zaionean. Bai, ordea, mugatzailearen asimilazioa, berdin mugatzaile singularra nola plurala eransten bazaio ere: *eskue(k)*, *katue(k)*, *mundue(k)*, *negue(k)*, *zerue(k)*, *zukue(k)* (salda), *pensue(k)* (pentsu), *zarzutue(k)* (zahartzaro), ...

Gastesik ere horrelako burutzapenak idatzi zituen batzutan, baina gehiago *-b-* kontsonante epentetikodunak: *galdue*, *atrebimentue*, ... baina *gal-dube*, *Coronatube*, *liburuben*, *gaubier*², ...

- **Asimilazio aurrerakaria: a > e / V_[+goi] (C) _**

Irañetako hizkeran erabat sistematikoa³ da asimilazio aurrerakaria, hau da, aurreko silabako bokal itxiak hurrengo silabako bokal irekia itxi egiten du, bai hitz barruan nola bukaeran, Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan eta Uhartan gertatzen den moduan: *izendu*, *ikesi*, *bizer*, *errire*, *Etxarrire*, *eskue*, *egun bet*, *mendiye*, *errire* (herrira), *Etxarrire*, *arrimetu*, ...

Sakana erdialdeko gainerako herrietan, aldiz, ez da asimilatzen bokal irekia hitzaren bukaeran baldin badoa.

Gastesik (1987) ere barra-barra erabili zituen asimilazio aurrerakaria erakusten duten burutzapenak: *animeren*, *eguiñe*, *imagiñera*, *imagiñe*, *Aite*, *destineturic*, *erreinetceco*, *marie Santisimec*, *Plume*, *andibet*, *gaucebat*, *damutasune*, *cause*, *guztie*, *itze*, *andie*, *sentencie*, *dire*, ... Hala ere, ez dira gutxi testuinguru berberan asimilazioa burutu gabe erakusten duten burutzapenak: *gauza*, *libratceco*, *eternidade*, *felicidadieren*, *educatcen*, *anima*, *animale*, *Cillarra*, *seculaco*, ...

EAELen ondorengo burutzapen asimilatuak jaso ditugu: *makinetu*, *mutille*, *iferra* (*ifarrea* ere bai), *malluke*, ...

Sakanako Ahozko Tradizioa lanean hurrengo burutzapenak ageri zaizkigu: "... eta beste kuadril bet txapetan ..." (18), "Aite, aite!" (18), "... amabirjiñe ..." (19).

- **/e/ bokalaren itxiera: -e + C + -a > *-ea > -[j]á**

Hemen agertzen den bilakabidean baino ez da gertatzen Irañetako euskararen /e/ bokalaren itxiera. Sakana erdialdean eta Burundan ere gertatzen da bilakabide hau. Bokalen arteko kontsonante erorkorra galdu eta diptongoa sortzen da erdiko bokalaren itxierarekin, bokal erdia bihurtzen delarik. Bilakabide hau deklinabideko adlatibo kasuaren morfema kontsonantez edo *-e* bokalaz amaitzen diren lexemei eransterakoan eta *bat* zenbatzailearekin sortutako sandhien kasuetan suertatzen da: *atzia* (atzera),

² Burutzapen honen bilakabidea ondorengoa litzateke: *gau* + *-ean* > **gaubean* (kontsonante epentetikoa) > *gaubien* (-ea- > -ie- disimilazioa).

³ Bestalde horrela jaso nuen lehenago ere *Etxarri-Aranazko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa* lanean (FLV 86, 2001, 103): *Asimilazio aurrerakariaren burutzapenak oso hedatuak daude Sakana erdialde osoan, eta baita ekialderagoko herrietan ere, hots, Irañeta eta Urritzolan behinik behin. (...) Irañetan ere bai sistematikoki Erizkizundi Irukoitzaren emaitzak kontuan izaten baditugu (egiye, zille, zazpiñe, litzeke, izen(du), inder, eskube, aite ...); eta azkenik, Sakanaren ekialdeko muturrean dagoen Urritzolan ere bai, 'Nafarroako Euskara' CD_ROM-ean entzun daitekeen moduan (aitte, maize, makinek, izendu, pusketzeko, Afriken, destinetu, billetzeko, bakuitze ...).*

batia (batera), *itxia* (etxera), *aurria* (aurrera), *semit* (seme bat), *urtiat* (urte bat), ...

Ez da, berriz, Sakana erdialdean eta Burundan burutzen den $-e + C + -o > -eo > -[j]ó$ bilakabidea gertatzen Irañetako hizkeran. Bokalen arteko kontsonantea erori bai erortzen da, nahiz eta zenbait kasutan gorde, baina ez da inondik inora ere diptongorik sortzen: *berotu*, *ge(r)o*, *egunero*, *merkeo* (merkeago), *luzeo* (luzeago), ...

- *Hasierako /e/ bokala mantendu egiten da, orokorrean*

Salbuespen bat edo beste bada ere, *iyó* (eho), *iruzki* (eguzki) eta *itxe*⁴ (etxe), Arruazuko eta Uharteko hizkeren modura, ez da Irañetako euskararen hitz hasierako /e/ bokala ixten eta, are gutxiago, ondoren kontsonantizatu, Burundan, Etxarrin, Lizarragan eta Lakuntzan bezala: *eman* (eraman), *erosi*, *egosi*, *eran* (edan), *erantzi*, *eon*, *eakusi*, *eozein*, ...

- */o/ → /u/ | _n bilakabidea*

Erdiko bokala itxi egiten da kontsonante sudurkariaren aurrean: *nun*⁵, *nundi(k)*, *trunku*⁶, ... Hala ere, jarraian ikus dezakegunez, *o* → *u* | *_n* bilakabidearen lekukotasuna adierazten dutenak, *non* galdetzaila eta honengandik eratorritako burutzapenak dira bereziki: *nun* (non), *nungo* (nongo), *nunbeitt* (nonbait), *nunei* (nonahi), *nungue* (nongoa), ...

- */ai/ → /ei/ diptongo itxiera ez da sistematikoa*

Burundan ez da ia inoiz suertatzen burutzapen hau, baina bai Sakana erdialde osoan. Irañetako hizkeran bi joerak ditugu: alde batetik, berean mantentzen da diptongoa zenbait burutzapenetan: *bai*, *jai*, *lasai*, *Bakai-ku*, ...; eta bestetik, itxiera suertatzen da beste zenbaitetan: *mei* (mahai), *nei* (nahi), *izein*, *meiz*, *usei*, ... Eta Gastesiren sermoietan ez da ageri horrelako diptongo itxierarik: *noizbait*, *baño*, ...

Bestalde, kontrako bilakabidea, *lei/* → *lai/*, behin baino ez dugu jaso: *aizie* (ehiza). Eta beste hurrengo burutzapenetan Gastesiren sermoietan: *gayego* (gehiago), *daitcendiete* (deitzen diete), *daicen* (deitzen), *daitcias* (deitzeaz).

- */eul/ → /aul/ diptongo irekiera*

Sakana erdialde osoan bezain sistematikoa suertatzen da aipatu bilakabidea Irañetako hizkeran: *auskeras* (euskaraz), *aun* (ehun), *auriye* (euria), *auliye* (eulia) (baina *eltxue*), *aultzkiye* (eultzia), *laune* (leuna), *naurriye* (neurria), ...

Beste zenbait burutzapenek erakusten digute *aul/* diptongoa monoptongatzeko joera: *arrotzie* (arrautza), *iyotiek* (inauteak), *noken/yoken/zoken* (neukan/heukan/zeukan), *alkiye* (aulkia), *itturriko* (itaurreko), *baruik*

⁴ Horrela jaso dugu Sakanako Ahozko Tradizioa lanean (SAT, 18): "... erriko itxe aiek erre zee-nien ...".

⁵ Gastesiren sermoietan ere horrela jaso dugu (57 or.; ..., *nun zaude*, ...) eta baita SAT lanean (18): "..., *nun ote den aitek?*". Horrela ageri da, beraz, aipatu lanean, baina gure ustean, grabaketa entzun ondoren, horrela jarri beharko luke: "... *nun ote dee nee aitek?*" (Non ote daude nire aitek?).

⁶ Horrela jaso dugu EAELn (169): "*Etxea etorri ta trunku zabal batzutan, olako zabal batzutan!*, *patzen zen iruzkire eta txigor txigor eiten zen eta trunkun artu malluka atekin kaska kaska kaska jo*".

(baraurik), *antxur* (intxaur), ... Gastesik (FLV 49, 61 or.) *-au-* > *-a-* bilakabidea erabiltzen du 'eduki' aditzaren kasuan: *zacaten*⁷ (zeukaten).

Eta behin baino ez bada ere, *o* → */au/* diptongazioa suertatzen da kontsonante sudurkariaren aurrean: *auntzi* (ontzi).

- *-a + -e* → *-e bilakabidea*

Arbizutik hasi eta ekialdera dauden herrietako hizkeretan gertatzen den moduan, *-a* bokalaz amaituriko aditz formei *-en* eta *-ela* menderagailuak eransten zaizkienean erdiko bokalaren alde egiten du Irañetako hizkerak (Etxarrin eta Ergoienan, aldiz, beheko bokalaren alde): *tor den gizona* (etorri den gizona), *joan dela san du* (joan dela esan du), ...

Eta zenbatzaile orokorra ere *e* bokalaz burutzen da: *dena* (dena, guztia).

- *-e* → *-a / _r bilakabidea*

Sakana erdialdean bezala, */r/* kontsonante dardarkari anizkunaren aurrean *-e-* bokalaren irekiera (*e* > *a* bihurtzen da) suertatzen da behin edo beste⁸ Irañetako hizkeran: *baztar*, *asarre*, ...

- *-on- ez bukatu-riko gaztelaniako maileguak ez dira /oi/ burutzen*

Aurreko ezaugarriaren modura Sakana osoko eta Nafarroako hizkeretan bezala, ugari dira Irañetako euskararen erabiltzen diren gaztelaniako mailegu berriak eta gaztelaniaren antzera burutzen direnak, hau da, bukaerako *-on* mantentzen dutelarik: *montona*⁹, *balkona*, *kamiona*, *sermona*, *balona*, *jabona*, *leona*, *pantalona*, ...

'Razón' mailegu zaharra, berriz, *arrazo* esaten da eta mugatzaile singularran eransterakoan ondorengo moduan burutzen da: *arrazo + -a* > *arrazue*. Gaztelaniako beste zenbait mailegu, *-ción* bukaeradunak hain zuzen, *-zio* burutzen dira Irañetako hizkeran: *debozio*, *maldizio*, *afizio*, ...

- *-e- bokalaren epentesia*

Burundan eta Ergoienan (ez Sakana erdialdean) gertatzen den bezala, bi kasutan gutxienez ageri zaigu aipatu bokal epentetikoa Irañetan, hau da, berez beharrezkoa ez den bokala tartekatzen zaio: *esene* (esne), *asenei* (*ha(t)znahi, hazgale, azkura).

- *Metatesiak*

Ugari dira, Sakana guztian bezala, Irañetako hizkeran metatesidun burutzapenak, fonema batzuk lekuz aldatuak erakusten dituzten burutzapenak, hots: *kuttu*¹⁰, *luzindu* (lizundu), *kaprestu* ('cabestro'), *kijera* (jikara), *mantzaliñe* ('manzanilla'), *galtzarrotxa* (galtzorratz), *andeitz* (endaitz), ...

⁷ Guk *-au-* > *-a-* bilakabidea dela esan dugu eta ez *-eu-* > *-a-*, Sakana eta Nafarreraren ezaugarria baita lehen aldian bokal irekia mantzentzearena: *zakabien* (zeukaten), *zakiyon* (zitzaion), *naallen* (nen-bilen), ...

⁸ Burundan askoz ere emankorragoa da bilakabide hau, ia-ia esan daiteke era sistematikoan gertatzen dela: *aguardi*, *eskarrikasko*, *maizter*, *izardi*, *muskar*, *infarnu*, *baztar*, ...

⁹ Horrela ageri zaigu jasoa EAELn (169): "..., ta gero bildu ure sarde aundi batekin eo monton batea ta aizetu".

¹⁰ Hauxe izango litzateke bere bilakabidea, kontsonante herskari hortzetakoaren sabaikaripenak erakusten digun moduan: *ukitu* > *ukittu* (sabaikaripen edo palatalizazioa) > *ikuttu* (metatesia) > *kuttu*. (aferesia).

Bestalde, hiru burutzapen jaso ditugu Gastesiren sermoietatik: *probiei* (58), *iduri* (61), *chilincheca* (59) (txintxilika).

- *Aferesiak eta sinkopak*

Sakana erdialde osoan hedaturik badira ere aferesidun burutzapenak (hitz hasierako bokala galtzen dituztenak), bereziki Lakuntzatik ekialdera ugaritzen dira eta Irañetan, Uharten edo Arruazun baino gehiago ageri zaizkigu: *jito*¹¹ (ijito), *men* (omen), *kordioniste* (akordionista), *txikoiye* (atxikoria), *man*¹² (eman), *karri* (ekarri), *torri* (etorri), *san* (esan), *zautu* (ezagutu), *in*¹³ (egin), *zazu* (ezazu), *toz* (zatoz), ... Gastesiren sermoietan behin gutxienez irakurri ahal izan dugu horrelako burutzapen aferesiduna: *manzalie*. Eta Sakanako Ahozko Tradizioa lanean ere ondorengo burutzapenak jaso ditugu: “... *lurrea bota in yuen ...*” (19), “... *pasten men yuen amabirjiñe*” (19).

Eta ia gauza bera esan daiteke sinkopari buruz, hau da, hitz barruan bokala galtzen duten burutzapenei dagokienez: *txerzei* (txerrizain), *erleju* (erreloju), *andre* (andere), *bedratzi* (bederatz), *libruu* (liburu), *atra* (atera), *pastu* (pasatu), *sobraa* (sobera), *ibilko* (ibiliko), *ikesko* (ikasiko), *ekar-ko* (ekarriko), ...

Hurrengo burutzapenak Sakanako Ahozko Tradizioa lanetik bildu ditugu: “*Ori, ogeitabedratischen ...*” (18), “...: *Pedro ze pastu en erri ontan, bost ...*” (18), “*Ari yezen bi neskato, eskolatik atra ta, bueno, arboletik beste arbolea pasten men yuen amabirjiñe*” (19).

Pastu duk arrei salzalia? (Pasatu duk arrain saltzailea?) jaso diogu guk Timoteori.

- *Bokal itxien zenbait txandaketa*

Zenbait burutzapenetan, Irañetako euskaran, bokal itxiak (/il eta /ul) txandakaturik ageri zaizkigu, batzuetan Sakana erdialdeko hizkeren antzera eta beste batzuetan ez: *bilixkorrien* (< biluzgorrian; horrela erabiltzen dute Altsasun eta Bakaikun eta antzeko burutzapenak Etxarrin, Unanun eta Uharten: *bilixkorriko* lehenean; *bilixgorriyen* beste bietan), *giltzurin* (giltzurrun; modu berean Arbizun, Uharten eta Arruazun; *giltzurin* Etxarri-Aranatzen; *bultzurrun* Burunda osoan), *urritti* (urruti; Sakana erdialdean eta Burundan *irruiti*), *atximixke* (atximurka; modu berean Sakanan osoan), ...

¹¹ Corominasek hiztegian ‘gitano’ egiptano-tik datorrela dio, hau da, egipziarra esan nahi omen du. Horrela beraz, *ijito* burutzapena Egipto hitzetik dator hasierako e- bokala itxi delarik beste hainbeste burutzapenetan (*iguzkiliruzki*, *inere*, ...) gertatzen den moduan eta, ondoren, hasierako bokala galdu. Euskarak, orduan, ez du gaztelaniak bezala jentilizioa baliatu, herriaren beraren izena baizik, ondorengo izan delarik bere bilakabidea: *Egipto* > *ejito* > *ijito* > *jito*.

¹² Sintaxiaren atalean jaso dugu honelako burutzapen aferesiduna nominalizazioaren atalean: *Txakurrari egunien bein bakarrik maten zakiok jatia!*

¹³ Eta burutzapen honena, berriz, ondorengo: *egin* > *ein* (bokal arteko herskari belare ahostunaren galera) > *in* (aferesia). Aurreko burutzapenak ere bilakabide berbera izan du: *ezagutu* > *ezautu* > *zautu*. Bestalde, horrela jaso diete Timoteo Beraza eta Esteban Ieregiri SATen: “*An euskias ezen itten*”. “... *betiko euskera inko die zerak Pedrotxok ta Dominikak ...*”.

KONTSONANTISMOARI BURUZKO EZAUGARRIAK

• *Asimilazio-bustidura edo palatalizazioa*

Sistematikoa da /i/ bokalak eragindako bustidura Irañetako hizkeran, Sakana erdialde osoan bezala. Burutzapen palatalizatuak barra-barra ageri dira: *pillaat* (pila bat), *beño* (baino), *oiño/oiñikuan* (oraino/oraingoa), *mutillek, billetu, orriaño* (horraño), *muittu* (mugitu), *aundittu, argittu, idiittu* (eduki), *itto* (ito), *pintterdi* (pinta erdi), *ixo, ixildu, pixu, minttei* (mintegi), *nolabeitt, keñu, zirriñe* (enara), *illargi, pillota, billabarkiñe, iller* (ilar), *illarraka* (ilar), *ziller* (zilar), *iñuzture* (oinaztura), *zirrittu* (zirrikitu), *lixtor* (iraztor), *ortzillere* (ostiral), *urritti* (urruti), ...

Asko dira, era berean, Gastesiren sermoietan, burutzapen palatalizatuak: *cillarra, ciñuzquien, ceñ, imagiñera, aiñ, aiñbeste, baño, masalleco, allegatuco, illzalie, illcera, billacendu, ...*

Bestalde, bustidura adierazkorra ere ageri da maiz Irañetako hizkeran: *txapelatxa* (zapelatza), *gauxirrin* (saguzar), *txintxere* (zizare), *pottiko* (zaldiko), *faaxi* (pagazi), *txantxigor* (gantz + zigor), *kuxkutu* (kuxkuxean ibili), *pattar, pattal, ...*

• *Kontsonante herskariak. Galerak eta txandaketak*

Sakana erdialdean gertatzen denaren antzera, /h/ kontsonantearen tokian /g/ herskari belare ahostuna ageri da Irañetako hizkeran ere, gutxienez hemen aipatuko ditudan lehen bi burutzapenetan: *ago* (aho), *agotz* (ahotz). Burutzapen hauetatik ondorengo arauak atera daitezke: *h > g / a_o ; aho > ago*. Hala ere, ez da kontsonante txandaketa berbera gertatzen Arbizun, Etxarrin eta Ergoienan burutzen den denbora aditzondoaren kasuan: *goneskios* (honezker) aipatu herrietan, *oneskio* Irañetan. Eta ia Sakana osoan hedatua dugun denbora aditzondoaren *guai* (orain) burutzapena (*wa > gua*-) ere ez da horrela erabiltzen Irañetan, *orein* baizik. Bai, aldiz, jatorri berbera duten hurrengo bi burutzapenak: *guatze* (ohatze), *quartu* (ohartu). Gastesiren sermoietan (FLV 49, 59 or.) ondorengo burutzapenak jaso ditugu: *goye* (hoa), *ogatcera* (ohatzera).

Bestalde, herskari belare ahostuna, /g/, eta ahoskabearen, /k/, arteko txandaketa, azken honen alde ageri da neutralizaturik, salbuespen bat edo beste ere badelarik: *keñu* (keinu), *korputz, kinder* (gider), *kendu, kartzela, korosti, kanbiyo, konbietu* (gonbidatu), *kolko, kalbario, kaldor, kisu* ('gypsum'), *lankar* (langar), ... baina era berean, *gostatu, garraxi, goñedo, golpe, gitarra, galtzin* (kare), ... Eta Gastesiren sermoietan (FLV 49, 57-58 or.) ere azken hauen modukoak: *gostatua, guenducion, gostatucequion, ...* Ezpainetakoen artean ahostuna, /b/, zein ahoskabea, /p/, biak ageri dira indar berdinarekin, hurrengo burutzapenek erakusten diguten moduan: *piztu, pertz, piper, pake, barkatu, bekatu, bizkor, boltsa, ...*

Kontsonante herskariaren galerei dagokienez, bokal desberdinen artean dagoenean, belare ahostunaren kasuan (/g/) maiz suertatzen da, batez ere *-ago* morfema konparatzailea eransten denean: *in* (egin), *nause* (nagusi), *zautu, beltzoo* (beltzago), *txikiyoo* (txikiago), *dao* (dago), ... baina *egosi, egon, xegi* (jagi), *ebagi, ...* Bokal berdinen artean ere gauza bera esan daiteke: *goorra, paatu* ('pagatu' eta 'paratu'), *gootik, ...* baina *sagarra*.

Kontsonante ezpainetako herskari ahostuna (/b/) ere maiz galtzen da, batez ere 'ibili' aditzaren formetan eta 'bat' zenbatzaile zehaztuarekin sortutako sandhietan: *naalle* (nabil), *aalle* (habil), *gailtze* (gabiltza), *bestiat* (beste bat), *zuluat* (zulo bat), ...

Eta kontsonante herskariak eta beste kontsonante batzuen arteko txandaketak direla eta, ezpainetakoak, /p/ eta /b/, eta ezpain-hortzetako igurzkarri ahoskabearen, /ff/, artean, gehienetan azken hau erabiltzen dute Irañetan, ondorengo burutzapenetan ikus daitekeen moduan: *fago*, *festa*, *kafi*, *afaldu*, *fixtuba*, *safei* (sabai), *ferra*, *fede*, *infernu*, ... Hala ere, entzun daitezke hurrengoak: *pake*, *alper*, *napar*, *iper*, *piku*.

Bestalde, hortzetako herskari ahostuna eta dardarkari samurraren artean suertatzen den txandaketaren auzia nahasirik ageri zaigu Irañetako euskaran, ondorengo burutzapenek erakusten duten moduan: *erai* (edari), *etorriai* (etor hadi), *beiket¹⁴* (bedeinkatu), *idi*, *ergonide* (erbinude).

Eta, azkenik, hortzetako herskari ahostuna eta // kontsonante albokariaren artekoetan, berriz, Irañetako hizkerak albokaria baliatzen du era sistematikoan: *elur*, *illarraka* (txilar), *iller* (ilar), *illargi* (ilargi), *belar*, *ziller* (zilar). Sakana erdialdean, Etxarrin esate baterako, besteak beste hurrengoak entzun daitezke: *ider* (ilar), *idergi* (ilargi) eta *zider* (zilar).

- ***Kontsonante txistukariak***

Ugari dira /s/ edo /z/ palatalizaturik agertzen dituzten burutzapenak /i/ goiko bokala eragile zuzen dutelarik, bai bokal oso bezala, bai diptongoaren bigarren elementu gisa: *pixe*, *ixo*, *ixilik*, *abixetu*, *axai¹⁵*, *goixo*, *bixi-bixi*, *lixtor*, *meixtru*, *pixke*, *atximixke*, *fixtu*, ... Bustidura edo palatalizazio adierazkorra, aldiz, ez da gertatzen Irañetan izen berezietan ez bada: *samar*, *sau* (sagu), *sorgiñe*, ...

/n/, // eta /r/ kontsonanteen ondoren txistukari frikariak ez dira afrikatzen, Sakana erdialdeko joera nagusiari jarraituz. Hala ere, badira gaur egun zenbait hiztun aipatu kontsonanteak afrikatzen dituztenak, euskara batuaren eraginez, seguru asko: *alsasuarra*, *pensube*, *pensatu*, *jerse*, *bersolai*, *falsu*, *kanzonzillo*, *franzesa*, *zarzutu* (zahartzaro), *karzela*, ... Eta horrelako burutzapenak ageri zaizkigu barra-barra Gastesiren sermoietan: *pensatie*, *pensatcen*, *eguinzuen*, *galcenduzu*, *illzalie*, *illcera*, *arciagatic*, ...

- ***Albokariak***

Egoera nahasia erakusten du Irañetan //n kontsonanteen arteko txandaketak. Txandaketa honi dagokionez, jarrera kontrajarria dute Burunda eta Sakana erdialdeko hizkerak, haiek sudurkariak (*narru*, *nasai*, *naurri*, *nazka*) eta hauek albokariak (*larru*, *lasei*, *laurri*, *lazka*) erabiltzen dituztelarik. Irañetan, esan bezala, bi motatako emaitzak jaso ditugu: *larru* eta *lasai*, baina *naurri* eta *nazka*.

¹⁴ Burutzapen honetan eta aurrekoan, lehenik *d/r* txandaketa eta, ondoren dardarkari samurraren galera suertatu da: *etorri hadi* > *etorriari* > *etorriai* / *bedeinkatu* > **bedikatu* > *bediketu* (asimilazioa) > *beriketu* > *beiketu*.

¹⁵ Diptongo bigarrenkariaren irekiera gertatu da burutzapen honetan, kontsonante dardarkari samurraren galera suertatu eta gero.

Bestalde, behin baino ez bada ere, kontsonante dardarkariaren ordeaz ageri zaigu albokaria, Sakana erdialdean gertatzen den bezala: *fale* (joare; Burundan *fara*).

Ezagunak dira, era berean, /l/ albokaria bigarren osagaitzat duten kontsonante bikoitzak, /pl/ eta /fl/, hots: *plumetu* (lumatu), *platera*, *planta* (landare), *flore* (lore), ...

- **Kontsonante igurzakariak**

Ez da batean edo bestean baino gertatzen Sakana erdialdean sistematikoki suertatzen den *jff*txandaketa. Soilik horrelako burutzapen bat jaso dut Irañetan: *fale* (joare), baina berriz *itxuxure* (itaxur), *joan*, *jorratu*, ... Timoteo Berazak esan didanez, azkeneko bi hitzak ez ziren bere gaztaroan horrela burutzen, *xoan* eta *xorratu* baizik eta ondorengo burutzapenari dagokionez ere, gauza bera esan digu: *jegi* (jagi; Uharte Arakilen ere *jegi* eta Urdiainen *jagi*; Sakana erdialdean *jai*, bokal arteko herskaria galdu delarik) esaten omen da gaur egun, baina berak *xegi* erabiltzen zuela gaztaroan. (EDH liburuan horrela ageri da jasoa Arakilgo hizkeran). Txistukari frikariekin ere izaten da txandaketa, behin edo bitan gutxienez, *jaski* (saski), *xabona*¹⁶ (xaboi) burutzapenek erakusten diguten moduan, baina, hala ere, hurrengoan ez da horrelakorik suertatzen: *zaunkes* (zaunkaz, *jaunkes* Etxarrin).

Ohikoa dugu Irañetako hizkeran bestalde, *h,d,g,n > y / i_*V bilakabidea, erabat sistematikoa ez bada ere, ezen bilakabidea betetzen ez dela erakusten duten burutzapenak ere jaso baitituz: *iyó* (eho), *biyer* (bihar), *liyo* (*li-go, liho), *leyo* (leiho), *biyotz* (bihotz), *oyu* (oihu), *giyerri* (gihar), *geyo* (gehiago), *biyoka* (behoka), *iyende* (igande), *fiyetu* (fidatu), *bijeje* (bidaia), *iyela* (igela), *iyó* (igo), *iyote* (inaute), ... baina *iesi* (ihesi), *biurri* (bihurri), *iurtzi* (igurtzi), *bior* (behor; gogoratu, hala ere, *biyoka* ere erabiltzen dela).

- **Dardarkariak**

Dardarkari samurraren bokal arteko galerari dagokionez, egoera nahasia agertzen du Irañetako hizkerak sarri suertatzen baita aipatu galera, baina badira, era berean, galera horixe erakusten ez duten burutzapenak ere: *patatu* (paratu), *akusi*¹⁷ (erakutsi), *ezkatze* (ezkaratz), *abaaxu*¹⁸ ('abadejo'), *gaa* (gara), *zaa* (zara), *zaate*¹⁹ (zarete), *dee*²⁰ (dira), *axui* (axuri), *patetxoi* (paretaxori), *lixtor* (iraztor), *babatxui* (baratxuri), *baatze* (baratze), *beendu* (merendu), *itxia* (etxera), *noi* (nori), *nok*²¹ (nork), *amaan* (amaren),

¹⁶ Gaur egun *jabona* entzun daiteke. Gogoratu lehentxeago esandakoa *jff*txandaketa zela eta.

¹⁷ Bere bilakabidea ondorengoa izan da: *eraku(t)si > eakusi* (bokal arteko dardarkari samurraren galera) > *aakusi* (V₁V₂ > V₂V₂) > *akusi* (V₂V₂ > V₂). Arbizuko burutzapena bilakabidearen aurreko estadioan izango genuke, hau da, bokala geminatua agertzen den horretan, hain zuzen ere.

¹⁸ Jatorrian dardarkaririk ez badu ere, bere bilakabidea aztertuz ikus daiteke nola sortu den, gero galtzeko: *abadexu > abarexu* (d/r txandaketa edo alternantzia) > *abaexu* (dardarkariaren galera) > *abaaxu* (V₁V₂ > V₁V₁) > *abaxu* (V₁V₁ > V₁).

¹⁹ Aurreko oharreko burutzapenaren bilakabide berbera du d/r alternantzia suertatu eta gero eta azken estadiora iritsi ez delarik zenbait hiztunen ahotan behintzat: *zarete > zaete* (dardarkariaren galera) > *zaate* (V₁V₂ > V₁V₁).

²⁰ Burutzapen honen kasuan ere antzekoa dugu bilakabidea: *dira > dire* (asimilazio aurrerakaria) > *die* (dardarkariaren galera) > *dee* (V₁V₂ > V₂V₂).

²¹ Horrela ageri da Gastesiren sermoietan ere: *noc*.

... baina *azpiti gora, goiti bera* (goitik behera), *berandu, larunbeta, merendatu* (baina *beendu*), *zuri, zaizuri* (arrano mota), *erenio* (herenegun), *erauntsi, gero, borobil* (biribil), ... Ikusten denez, galdetzailetan eta aditz laguntzailearen nor erako formetan, sistematikoki galtzen da dardarkaria eta baita datibo, edute genitibo eta adlatiboko morfemen kasuan. Gainerako kasuetan dago indefinizioa, bi eratako emaitzak bizirik baitaude: *beendu* baina *merendatu*.

Mailegu nahiko berriak direnean, hitz hasieran mantendu egiten da dardarkari anitza, /?/, Sakana osoan gertatzen den moduan: *rekexona, redondo, raso* (arraso), *radiyo*, ... Eta mailegu zaharretan, aldiz, bokal protetikoa ageri da hitz hasieran, aipatu eremuan bezala: *arrotui* (arratoi), *arrazo* (arrazoi), *errazio* ('ración'), *erremedio, erreka, errueda, erreu* ('robo'), *errota, errosario*, ...

- *Errotazismoa*²²

Uharte Arakilen ageri zaigu lehen errotazismo aztarna Sakanako hizkerari dagokien neurrian, beti ere mendebaldetik ekialdera begiratzen dugularik. Eta norabide honetan hurrengo herria dugunez Irañeta, pentsatzekoa zen aztarnak gehituz joango zirela eta hala erakusten digute hemen jasotako zenbait burutzapenek, hala nola *ortzillere* (ostirala), *ertsi* (itxi), *ortots* (ostots), *ortots erauntsi* (ekaitz), *martutse* (masusta), ...

EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Ez ditugu oraingoan deklinabideko kasu guzti-guztiak hemen jasoko, emaitzak Sakana erdialdeko gainerako herrietakoak bezalakoak baititugu Irañetan. Eta izenordain, erakusle eta zenbatzaileen gainean ere gauza bera esan daitekeenez, soilik aipagarriak suertatzen diren burutzapenak jasoko ditugu atal honen hasieran.

DEKLINABIDEA, ERAKUSLEAK, ZENBATZAILEAK, ADITZONDOAK...

- Deklinabideari dagokionez, ablatibo eta sozietibo kasuak ditugu aipagarri hasteko, Irañetan ere, zenbaitetan, morfemen bukaerako kontsonanterik gabe burutzen baitira hizkera azkarrean kasu hauetako burutzapenak. Hala ere, batuaren eraginez, seguru aski, gero eta gehiago entzuten dira aipatu azken kontsonanteak: *adiñeti, emendi, oyeki* (horiekin), *elkarreki, oneki* (honekin), ...

Gastesiren sermoietan bi eratako burutzapenak ikus daitezke sozietiboan: *arrequin batien* (57 or), *arrequi* (57), *onequin* (61), *mortalarequi* (58), *au-*

²² "Etxarri-Aranazko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa" lanean (FLV 86, 2001, 104) horrela jaso nuen: "Ez da Sakana erdialde osoan errotazismoaren burutzapenik ageri, baina bai Uharte-Irañetatik ekialdera (*ortzegun* eta *ortzilere* jaso zituen Etxaidek Irañetan eta *ortzilare* Uharten; *esan/erran* jaso zituen, bestalde, aipatu ikerlariak 1989an Murginduetan; nik neuk ere jaso dut horrelako burutzapen bat Uharten, *ortots*, baina hauxe izan da bakarra, beste burutzapenak galdetu baditut ere), ...". Guri Timoteok esan digunez bere osaba Juan Irurzunek (1960. urte inguruan zendu zen ihabartarra) *erran* erabiltzen zuen beti.

bequi (58) (hauekin), ... Ablatiboari erreparatuz gero, berriz, beti agertzen da bukaeran kontsonante herskaria duelarik: *aurretic* (59), *conbentutic* (59), *lurretic* (57), *podoretic* (57, ...

Destinatibo eta prolatibo kasuetan, Nafarroa gehiengan bezala, *-arendako* eta *-tako* morfemak baliatzen ditu *irinterak* eta ez Euskal Herrian hain hedatuak diren *-arentzat* eta *-tzat*: *netako*, *semetako*, *semiendako*, *andriyandako* (anderearentzat), *andritako* (anderetzat), ...

Gastesiren sermoietan, 61. orrialdean ere horrela ageri da destinatiboko burutapena: "... *cergatic guztiendaco paratuzuen* ..."

Instrumentalaren kasuan ere, nafarreraren moduan egiten dute Irañetan, *-s* morfema erabiltzen dutelarik: *itxes itxe*, *aurres aurre*, *askos*, ... Gastesik ere horrelako burutzapenak erabili zituen: *ontas* (57 or.), *lotsas* (57), *ascos* (57), ...

Hona jarraian, eredu moduan, izen bizidun (*ume*) eta bizigabe (*mendi*) banaren deklinabidea:

<i>deklinabide kasua</i>	<i>ume</i>	<i>mendi</i>
absolutiboa	<i>umie</i> (sg), <i>umiek</i> (pl)	<i>mendiye</i> (sg), <i>mendiyek</i> (pl)
ergatiboa	<i>umiek</i>	<i>mendiyek</i>
datiboa	<i>umiei</i>	<i>mendiyai</i> (sg), <i>mendiyei</i> (pl)
edute genitiboa	<i>umien</i>	<i>mendiyan</i> (sg), <i>mendiyein</i> (pl)
destinatiboa	<i>umiendako</i>	<i>mendiyandako</i> (sg), <i>mendiyendako</i> (pl)
prolatiboa	<i>umetako</i>	<i>menditako</i>
ablatiboa	<i>umiengandik</i>	<i>mendit(t)ik</i> (sg), <i>menditetik</i> (pl)
adlatiboa	<i>umiengana</i>	<i>mendire</i> (sg), <i>menditaa</i> (pl)
inesiboa	<i>umiengan</i>	<i>mendiyein</i> (sg), <i>menditen</i> (pl)
partitiboa	<i>umeik</i>	<i>mendiik</i>
motibatiboa	<i>umiengatik</i>	<i>mendiyangatik</i> (sg), <i>mendiyengatik</i> (pl)
soziatiboa	<i>umieki(n)</i>	<i>mendiyaaki(n)</i> (sg), <i>mendiyeki(n)</i> (pl)
instrumentala	<i>umies</i> (sg), <i>umetas</i> (pl)	<i>mendiyes</i> (sg), <i>mendites</i> (pl)
leku genitiboa	<i>umien beitteko</i>	<i>mendiko</i> (sg), <i>menditeko</i> (pl)

- Erakusleek ere Sakanako eta nafarrerako joera erakusten digute, oso ohi-koak baitira *arren* (haren) moduko burutzapenak Irañetan: *arrek* (hark), *arreki* (harekin), *arrendako* (harentzat), *arregati* (harengatik), ... Gastesiren sermoietan ere ageri zaizkigu: *arrequin batien* (57), *arrequi* (57), ...
- Zenbatzaileak. Bateko zenbatzaileen artean, soilik *bedratzi* dugu burutzapen aipagarria, erakusten duen sinkopagatik. Hamarrekoak, aldiz, bi modutan burutzen dira: *berrogei*, *berrogeitamar*, *irutanogei*, *irutanogei-tamar*, *lautanogei*, *lautanogei-tamar*. Eta ehunekoetan ere gauza bera gertatzen da: *berraun*, *irutanaun*, *lautanaun*, *bostenaun*, *seitanaun*, *zortzi-tanaun*. Horrelaxe jaso dituzte EAELen (1985) ere, ehunekoetan ezberdin ageri direlarik: *berrogei*, *irutan hoge*, *irutan ogeitamar*, *lautan hoge*, *lautan hoge tamar*, *berraun*, *iruraun*.

- Konparatiboa. Irañetan, Sakana osoan burutzen duen moduan, *-ago* > **-ao* > *oo* bilakabidea baliatzen dute konparatiboan, absolutiboan gertatzen diren aldaketa fonetikoak gordetzen direlarik: *gaztioo* (gazteago), *txikiyoo* (txikiago), *eruo* (eroago), *lenoo* (lehenago), *zikiño* (zikinago), ... Hala ere, zenbaitetan, bilakabidea erabat burutu gabe entzun daiteke: *zarrao* (zaharrago).
Superlatiboa. Kasu honetan ere, Sakanakoak bezalakoak dira erabiltzen diren bilakabideak, *-V + -en* > *-VVn* eta *-C + -en* > *Cen*: *gazteena*, *eroena*, *biziina* (biziena), *mutuuna*²³, *aulena* (ahulena), *polittena* (politena), ...
Gehiegizko maila. Etxarriko eta Uharteko hizkeren moduan burutzen dituzte Irañetan gahiegizko mailaren adierazpenak, hots, *-gi* morfema zuzenean erantsirik lexemari: *luzegi*, *aundigi*, *erogi*, *beandugi*, *txukunegi*, ...
Aditzondoak. Sakana erdialde osoan erabiltzen diren aditzondoak ditugunez Irañetakoak, nahasian jasoko ditugu horietatik erabilienak erreparatu gabe denborazkoak, lekuzkoak, moduzkoak, iritzizkoak edo mailazkoak diren: *lixto* (laister), *alduen* (aldian), *berriz*, *aurki*, *belexe* (berehalaxe), *beandu*, *bart*, *sarri* (askotan, laister), *lendaizko* (lehendabiziko), *noizen bein* (noizean behin), *sekule*, *etziamu* (etzidamu), *gero*, *lenguan* (lehen-goan), *eranion* (herenegun), *onea* (hona), *orrea* (horra), *aita* (hara), *nunnei* (nonahi), *nuanei* (noranahi), *obeki*, *ongi*, *gezki* (gaizki), *txarki*, *poleki*, *ederki*, *laixterkan* (laisterka), *arriken*²⁴ (harrika), *inbuluzken* (itzulipurdika), *furrutekan* (zurrutaka), *malamente*²⁵, *majo*, *erabat*, *raso* (arras), *izugeri*, *gooti* (gogotik), *nunbeitt* (nonbait), *apike* (apika), *bierbada* (behar bada), *agi denes* (aidanez), ...

ADITZA

Irañetako aditzaren paradigma aurkeztu aurretik, hizkera honetako aditzak dituen ezaugarriak aipatuko ditut:

- Oso erabiliak dira partizipio analogikoak: *izendu*, *jakindu*, *ibildu*, *bieldu*, ...
- Bi morfema ezberdin erabiltzen dira etorkizuneko aspektoa burutzeko, *-en* eta *-ko* (*-go*): *esaan/lesanen*, *emanen*, *etorko*, ...
- NN_iN_k erako adizkiek *-i-* erroa hartzen dute Arbizutik ekialdera gertatzen den moduan: *diozte*, *diote*, *diot*, ...
- *-z-* pluralgilea erabiltzen da NN_k erako zenbait adizkiren kasuan lehen aldian: *giñuzen*, *ziñuzen*, *ziñuzten*, ...
- NN_iN_k erako adizki gehienek *-it-* edo *-z-* pluralgileak erabiltzen dituzte: *ttezu* (dizkidazu), *ttiot* (dizkiot), *yezen* (hizkidan), *ziñezen* (zenizkidan), *ziñezten* (zenizkidaten), *giñezken/giñezenen* (genizkian/genizkian), ...

²³ Zenbaitetan, *mutuena* ere entzun daiteke.

²⁴ Erdarazko 'con viento fresco'-ren parekoa.

²⁵ Erdarazko 'en vano', 'en balde' adierazpenen parekoa.

- NN_i eran *-ki-* erroa erabiltzen da Sakana erdialde osoan bezala: *da(z)kit*, ...
- ‘Zuek’ pertsonaren ezaugarria *-zte* (< *-zute*, sinkopa) da: *daukezte* (daukazue), *dakizte* (dakizue), *damazte* (daramazue), ...
- NN_k eta NN_iN_k eretan, objektu plurala denean, forma aferesidunak erabiltzen dira nafarrera ia osoan bezala: *ttut* (ditut), *ttuzu* (dituzu), *ttiot* (dizkiot), ...
- ‘Etorri’ aditzak ez du forma sintetikorik eta ‘heldu’ erabiltzen da horretarako: *eldu neiz* (banator), ...
- Alokutiboko maskulinoko morfema *-t-* da Irañetako zenbait adizkietan: *ziotet* (zioat), *ziotau* (zioagu). I. Caminok²⁶ dioenez gauza bera gertatzen zen Urritzolan eta Ihabarren.

ADITZ LAGUNTZAILEA

Jarraian, aditz laguntzailearen formak ikusiko ditugu, orain eta lehen aldian, Nor eran guztiak eta Nor-Nori eran soilik Nor hirugarren pertsona denean, gainerako Nor pertsonen kasuan ez baita dagoeneko erabiltzen. Azken era honetan ikus daiteke, Sakana erdialde guztian bezala, *-ki-* erroa hartzen duela Irañetan ere aditzak :

- NOR era

<i>orain</i>				<i>lehen</i>			
<i>batua</i>		alokutib		<i>batua</i>			<i>alokutiboa</i>
naiz	<i>Neiz</i>	nauk/n	<i>Nuk/n</i>	nintzen	<i>Nitzen</i>	ninduan/nan	<i>Niken/nien</i>
haiz	<i>Yeiz</i>			hintzen	<i>Yitzen</i>		
da	<i>Da</i>	duk/n	<i>Duk/n</i>	zen	<i>Zen</i>	zuan/nan	<i>Yuen</i>
gara	<i>Gaa</i>	gaituk/n	<i>Gattuk/n</i>	ginen	<i>Giñen</i>	ginduan/nan	<i>Giñeken/nen</i>
zara	<i>Zaa</i>			zinen	<i>Ziñen</i>		
zarete	<i>Zaate</i>			zineten	<i>Ziñeten</i>		
dira	<i>Dee</i>	dituk/n	<i>Ttuk/n</i>	ziren	<i>Zeen</i>	zituan/nan	<i>Yutzen</i>

²⁶ Hego-nafarreraren egituraz (FLV 94, 2003; 433 orrialdea): “Alokutibo maskulinoko *-t-* morfema *-k-*ren ordain ageri zaigu (...) Andimendiaz bestaldera salbuespena da ekialdeko Arakil: Urritzolan eta Ihabarren *-t-* zegoen”.

• NOR-NORI era

<i>orain</i>			
<i>batua</i>			alokutiboa
zai(zki)t	<i>Da(z)kit²⁷</i>	zaidak/n	<i>Zakeek/n</i>
zai(zki)k/n	<i>Da(z)kik/n</i>		
zai(zki)o	<i>Da(z)kio</i>	zaiok/n	<i>Zakiok/n</i>
zai(zki)gu	<i>Da(z)kiau</i>	zaiguk/n	<i>Zakiauuk/n</i>
zai(zki)zu	<i>Da(z)kizu</i>		
zai(zki)zue	<i>Da(z)kizte</i>		
zai(zki)e	<i>Da(z)kiote</i>	zaiek/n	<i>Zakiotek/n</i>

• NOR-NORK era

<i>lehen</i>			
<i>batua</i>			alokutiboa
zitzaidan	<i>Zaken</i>	zitzaidaan/nan	<i>zakeeken</i>
zitzaian/nan	<i>Zakiken/nen</i>		
zitzaion	<i>Zakion²⁸</i>	zitzaioan/nan	<i>Zakioken</i>
zitzaigun	<i>Zakiaun</i>	zitzaiguan/nan	<i>Zakiauken</i>
zitzaizun	<i>Zakizun</i>		
zitzaizuen	<i>Zakizten</i>	zitzaiguan/nan	<i>Zakioteken</i>

NN_k eran, Nor hirugarren pertsona denean soilik bereizten dira NN_iNN_k ekiko formengandik. Horrexegatik, hurrengo koadroan NN_k erako forma berezituak jasoko ditut soilik, eta gainerakoak NN_iNN_k erako formen paradigman agertuko zaizkigu:

• NOR(hura)-NORK

<i>orain</i>				<i>lehen</i>			
<i>batua</i>		<i>batua</i>	alokutib.	<i>batua</i>		<i>batua</i>	alokutiboa
dut	<i>Dut</i>	diat/nat	<i>Diet/ñet</i>	nuen	<i>Nuen</i>	nian/nan	<i>Nien/ñenen</i>
duk/n	<i>Duk/n</i>			huen	<i>Yuen</i>		
du	<i>Du</i>	dik/n	<i>Dik/n</i>	zuen	<i>Zuen</i>	zian/nan	<i>Zien/ñenen</i>
dugu	<i>Duu</i>	diagu/nagu	<i>Diau/ñau</i>	genuen	<i>Giñuen</i>	genian/nan	<i>Giñeken/nen</i>
duzu	<i>Duzu</i>			zenuen	<i>Ziñuen</i>		
duzue	<i>Duzte</i>			zenuten	<i>Ziñuten</i>		
dute	<i>Dute</i>	diate/nate	<i>Die/ñe</i>	zuten	<i>Zuten</i>	zitean/nan	<i>Ziteken/nen</i>

²⁷ Horrela ageri da Gastesiren sermoietan (FLV 49, 1987; 59 or.): “*Bigarren aldien illcera elduaquit?*” (Bigarren aldian hiltzera heldu zait?).

²⁸ Aditz forma hau ere horrela jaso dut Gastesiren sermoietan (FLV 49, 1987; 58-59 or.): “... *baño ez orgatic juanazuquion egun ascos, ...*”. “*Eta gure Venteroa juan cequion illcera gaubien ...*”.

• NOR(haiek)-NORK

orain			
<i>batua</i>		batua	alokutib.
ditut	<i>Ttut</i>	ditiat/nat	<i>Ttiet/ñet</i>
dituk/n	<i>Ttuk/n</i>		
ditu	<i>Ttu</i>	ditik/n	<i>Ttik/n</i>
ditugu	<i>Ttuu</i>	ditiagu/nagu	<i>Ttiau/ñau</i>
dituzu	<i>Ttuzu</i>		
dituzue	<i>Ttuzte</i>		
dituzte	<i>Ttute</i>	ditiате/nate	<i>Ttiet/ñe</i>

leben			
batua		batua	alokutiboa
nituen	<i>Nittuen</i>	nitian/nan	<i>Nizken/ttenen</i>
hituen	<i>Yuzen</i>		
zituen	<i>Zittuen</i>	zitian/nan	<i>Zittiken/ñenen</i>
genituen	<i>Giñuzen</i>	genitian/nan	<i>Giñezken/zenen</i>
zenituen	<i>Ziñuzen</i>		
zenituzten	<i>Ziñuzten</i>		
zituzten	<i>Zittuten</i>	zitiztean/nan	<i>Zittiteken/nen</i>

• NOR-NORI-NORK era

Hurrengo paradigmetan, Nor-Nori-Nork erako aditz formak jaso ditugu, orain aldikoak lehenik eta iraganekoak ondoren, Nori pertsonen arabera ordenatuak. Gogoratu lehentxeago genioena Nor-Nork erako aditz formak azaltzerakoan, hau da, orain ikusiko ditugun aditz forma gehienek Nor-Nork erako aditz formak ordezkatzeko dituztela:

• NOR(hura)-NORI(niri, zuri/hiri)-NORK Orain aldia

<i>niri</i>				<i>zuri</i>		<i>hiri</i>	
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
				dizut	<i>Dizut</i>	diat/ñat	<i>Diet/ñet</i>
didak/n	<i>Deek/n</i>						
dit	<i>Dee</i>	zidak/n	<i>Zeek/n</i>	dizu	<i>Dizu</i>	dik/n	<i>Dik/n</i>
				dizugu	<i>Dizuu</i>	diagu/nagu	<i>Diau/ñau</i>
didazu	<i>Deezu</i>						
didazue	<i>Deezte</i>						
didate	<i>Deete</i>	zidatek/n	<i>Zeetek/n</i>	dizute	<i>Dizte</i>	diate/nate	<i>Diet/ñe</i>

- NOR(hura)-NORI(hari, guri)-NORK Orain aldia

<i>hari</i>				<i>guri</i>			
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
diot	<i>Diot</i>	zioat/nat	<i>Ziotet/net</i>				
diok/n			<i>Diok/n</i>	Diguk/n	<i>diauk/n</i>		
dio	<i>Dio</i>	ziok/n	<i>Ziok/n</i>	Digu	<i>diau</i>	ziguk/n	<i>ziauk/n</i>
diogu	<i>Diou</i>	zioagu/nagu	<i>Ziotau/nau</i>				
diozu	<i>Diozu</i>			Diguzu	<i>diauzu</i>		
diozue	<i>Diozte</i>			Diguzue	<i>diauzte</i>		
diote	<i>Dioite</i>	zioate/nate	<i>Ziotek/ne</i>	Digute	<i>diaute</i>	zigutek/n	<i>ziautek/n</i>

- NOR(hura)-NORI(zuei,haiei)-NORK Orain aldia

<i>zuei</i>		<i>haiei</i>			
batua		batua		batua	alokut.
Dizuet	<i>diztet</i>	Diet	<i>dietet</i>	zieat/nat	<i>zietet/net</i>
		Diek/n	<i>diok/n</i>		
Dizue	<i>dizte</i>	Die	<i>diote</i>	ziek/n	<i>ziotek/ne</i>
Dizuegu	<i>diztau</i>	Diegu	<i>diou</i>	zieguk/n	<i>ziotau/nau</i>
		Diezu	<i>diozu</i>		
		Diezue	<i>diozte</i>		
Dizuete	<i>dizte</i>	Diete	<i>diote</i>	zietek/n	<i>ziotek/ne</i>

Ikusten denez, badira hainbat sinkretismo edo aditz forma berdin pertsona desberdinetarako, forma alokutiboak kontuan izan gabe: *dizte* (haiek-zuri-hura; hark-zuei-hura; haiek-zuei-hura), *diote* (haiek-hari-hura; hark-haiei-hura; haiek-haiei-hura), *diou* (guk-hari-hura; guk-haiei-hura), *diozu* (zuk-hari-hura; zuk-haiei-hura), *diozte* (zuek-hari-hura; zuek-haiei-hura).

- NOR(haiek)-NORI-NORK Orain aldia

<i>niri</i>				<i>zuri</i>		<i>hiri</i>	
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
				dizkizut	<i>ttizut</i>	dizkiat/nat	<i>ttiet/net</i>
dizkidak/n	<i>ttek/n</i>						
dizkit	<i>ttee</i>	zizkidak/n	<i>zitttek/n</i>	dizkizu	<i>ttizu</i>	dizkik/n	<i>ttik/n</i>
				dizkizugu	<i>ttizuu</i>	dizkiagu/nagu	<i>ttiaul/nau</i>
dizkidazu	<i>ttezu</i>						
dizkidazue	<i>tteezte</i>						
dizkidate	<i>tteete</i>	zizkidatek/n	<i>zittitek/n</i>	dizkizute	<i>ttizte</i>	dizkiate/nate	<i>ttie/ñe</i>

hari				guri			
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
dizkiot	<i>tbiot</i>	zizkioat/nat	<i>zittiotet/net</i>				
dizkiok/n	<i>tbiok/n</i>			dizkiguk/n	<i>tbiauk/n</i>		
dizkio	<i>tbio</i>	zizkiok/n	<i>zittioik/n</i>	dizkigu	<i>tbiau</i>	zizkiguk/n	<i>zittiauk/n</i>
dizkiogu	<i>tbiou</i>	zizkioagu/nagu	<i>zittiotau/nau</i>				
dizkiozu	<i>tbiuzu</i>			dizkiguzu	<i>tbiauzu</i>		
dizkiozue	<i>tbiozte</i>			dizkiguzue	<i>tbiauzte</i>		
dizkiote	<i>tbiote</i>	zizkioate/nate	<i>zittiotek/ne</i>	dizkigute	<i>tbiaute</i>	zizkigutek/n	<i>zittiautek/ne</i>

zuei		haiei			
batua		batua		batua	
dizkizuet	<i>ttiztet</i>	dizkiet	<i>ttiotet</i>	zizkieat/nat	<i>zittiotet/net</i>
		dizkiek/n	<i>ttiotek/n</i>		
dizkizue	<i>ttizte</i>	dizkie	<i>ttote</i>	zizkiek/n	<i>zittiotek/ne</i>
dizkizuegu	<i>ttiztau</i>	dizkiegu	<i>ttou</i>	zizkieguk/n	<i>zittiotau/nau</i>
		dizkiezu	<i>ttezu</i>		
		dizkiezue	<i>ttozte</i>		
dizkizuite	<i>ttizte</i>	dizkiete	<i>ttote</i>	zizkietek/n	<i>zittiotek/ne</i>

Objektu plurala denean ere, ageri dira sinkretismoak hiru paradigmetan: *ttezu* (zuk-niri-haiek eta zuk-haiei-haiek), *ttizte* (haiek-zuri-haiek, hark-zuei-haiek eta haiek-zuei-haiek), *tbiok/n* (hik-hair-haiek eta hik-haiei-haiek), *ttote* (hark-haiei-haiek eta haiek-haiei-haiek), *zittiotek/ne* (harka-haiei-haiek eta haiek-haiei-haiek forma alokutiboak), *zittiotet/net*²⁹ (nik-hari-haiek eta nik-haiei-haiek forma alokutiboak).

• NOR (hura)-NORI-NORK Lehen aldia

niri				zuri		hiri	
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
				nizun	<i>nizun</i>	<i>nian/nan</i>	<i>nien/n̄en</i>
hidan	<i>yeen</i>						
zidan	<i>zeen</i>	zidaan/nan	<i>zeeken/nen</i>	zizun	<i>zizun</i>	<i>zian/nan</i>	<i>zien/n̄enen</i>
				genizun	<i>giñizun</i>	<i>genian/nan</i>	<i>giñeken/nen</i>
zenidan	<i>ziñeen</i>						
zenidaten	<i>ziñeten</i>						
zidaten	<i>zeeten</i>	zidatean/nan	<i>zeeteken/nen</i>	zizuten	<i>zizten</i>	<i>ziatean/naten</i>	<i>ziteken/nen</i>

²⁹ Yrizarrek (1992, 96-97) forma hauek modu ezberdinean jaso zituen, pluralgilea batzuetan adizkiaren hasieran ageri delarik: *zittiotet*, *zittiotek*, *ttizionet*, ...

<i>hari</i>				<i>guri</i>			
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
nion	<i>nion</i>	nioan/nan	<i>nioken/nen</i>				
hion	<i>yion</i>			higun	<i>yogun</i>		
zion	<i>zion</i>	zioan/nan	<i>zioken/nen</i>	zigun	<i>ziaun</i>	ziguán/nan	<i>ziauken/nen</i>
genion	<i>giñon</i>	genioan/nan	<i>giñoken/nen</i>				
zenion	<i>ziñon</i>			zenigun	<i>ziñauñ</i>		
zenioten	<i>ziñoten</i>			zeniguten	<i>ziñauten</i>		
zioten	<i>zioten</i>	zioaten/naten	<i>zioteken/nen</i>	ziguten	<i>ziauten</i>	zigutean/nan	<i>ziauteken/nen</i>

<i>zuei</i>		<i>haiei</i>			
batua		batua		batua	
nizuen	<i>nizten</i>	nien	<i>nioten</i>	nieran/nan	<i>nioteken/nen</i>
		hien	<i>yion</i>		
zizuen	<i>zizten</i>	zien	<i>zioten</i>	zieran/nan	<i>zioteken/nen</i>
genizuen	<i>giñizten</i>	genien	<i>giñon</i>	genieran/nan	<i>giñoteken/nen</i>
		zenien	<i>ziñon</i>		
		zenieten	<i>ziñoten</i>		
zizueten	<i>zizten</i>	zieten	<i>zioten</i>	zietean/nan	<i>zioteken/nen</i>

Ikusten denez, Nori hirugarren pertsonekin burututako adizkiak berberak ditugu ia, bai aditz laguntzaile arruntaren formei nola alokutibokoei dagokienez: *zizten* (haiek-zuri-hura, hark-zuei-hura eta haiek-zuei-hura), *yion* (hik-hari-hura eta hik-haiei-hura), *giñon* (guk-hari-hura eta guk-haiei-hura), *ziñon* (zuk-hari-hura eta zuk-haiei-hura), *ziñoten* (zuek-hari-hura eta zuek-haiei-hura), *zioten* (haiek-hari-hura eta haiek-haiei-hura), *zioken/nen* (hark-hari-hura eta hark-haiei-hura alokutiboak), *giñoken/nen* (guk-hari-hura eta guk-haiei-hura alokutiboak), *zioteken/nen* (haiek-hari-hura eta haiek-haiei-hura alokutiboak).

- NOR (haiek)-NORI-NORK Lehen aldia

<i>niri</i>				<i>zuri</i>		<i>hiri</i>	
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
				nizkizun	<i>nittizun</i>	nizkian/nan	<i>nitteken/nen</i>
hizkidan	<i>yezen</i>						
zizkidan	<i>ttizeen</i>	zizkidaan/nan	<i>ttizeken/nen</i>	zizkizun	<i>zittizun</i>	zizkian/nan	<i>zittiken/nen</i>
				genizkizun	<i>giñittizun</i>	genizkian/nan	<i>giñezken/zenen</i>
zenizkidan	<i>ziñezen</i>						
zenizkidaten	<i>ziñezten</i>						
zizkidaten	<i>zitteten</i>	zizkidatean/nan	<i>zitteteken/nen</i>	zizkizuten	<i>zittizten</i>	zizkiaten/naten	<i>zittizteken/nen</i>

<i>hari</i>				<i>guri</i>			
batua		batua	alokut.	batua		batua	alokut.
nizkion	<i>nitton</i>	nizkioan/nan	<i>nittoken/nen</i>				
hizkion	<i>yozten</i>			hizkigun	<i>yoguzen</i>		
zizkion	<i>zitton</i>	zizkioan/nan	<i>zittoken/nen</i>	zizkigun	<i>zittiaun</i>	zizkiguan/nan	<i>zittiauken/nen</i>
genizkion	<i>giñozen</i>	genizkioan/nan	<i>giñozken/nen</i>				
zenizkion	<i>ziñozen</i>			zenizkigun	<i>ziñauzen</i>		
zenizkioten	<i>ziñozten</i>			zebuzjugyten	<i>ziñauzten</i>		
zizkioten	<i>zittoten</i>	zizkioaten/naten	<i>Zittioteken/nen</i>	zizkiguten	<i>zittiauten</i>	zizkigutean/nan	<i>zittiauteken/nen</i>

<i>zuei</i>		<i>haiei</i>			
batua		batua		batua	
nizkizuen	<i>nittizten</i>	nizkien	<i>nitton</i>	nizkiean/nan	<i>nittoken/nen</i>
		hizkien	<i>yozten</i>		
zizkizuen	<i>zittizten</i>	zizkien	<i>zitton</i>	zizkiean/nan	<i>zittoken/nen</i>
genizkizuen	<i>giñittizten</i>	genizkien	<i>giñozen</i>	genizkiean/nan	<i>giñozken/nen</i>
		zenizkien	<i>ziñozen</i>		
		zenizkieten	<i>ziñozten</i>		
zizkizueten	<i>zittizten</i>	zizkieten	<i>zittoten</i>	zizkietean/nan	<i>zittioteken/nen</i>

ADITZ SINTETIKOAK

‘Etorri’ aditza ez da era perifrastikoan baino erabiltzen eta modu sintetikoaren ordez ‘heldu’ aditza baliatzen da Irañetan Nafarroa³⁰ eta Iparralde³¹ gehienez bezala:

“Bigarren aldien illcera elduquit?” (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59)
Biyer eldu da aittune itxia! (Bihar heldu da aitona etxera!).

EGON		IBILI		JOAN	
orain	lehen	orain	lehen	orain	lehen
<i>nao</i>	<i>nion</i>	<i>naille</i>	<i>nindaillen</i>	<i>noye</i>	<i>nindoyen</i>
<i>yao</i>	<i>yion</i>	<i>abile</i>	<i>indaillen</i>	<i>goaye</i>	<i>gindoayen</i>
<i>dao</i>	<i>zion</i>	<i>daille</i>	<i>zaillen</i>	<i>doye</i>	<i>zoyen</i>
<i>gue</i>	<i>giñuen</i>	<i>gailtze</i>	<i>gaailtzen</i>	<i>gaze</i>	<i>gindazen</i>
<i>zue</i>	<i>ziñuen</i>	<i>zailtze</i>	<i>zaailtzen</i>	<i>zaze</i>	<i>zindazen</i>
<i>zuate</i>	<i>ziñueten</i>	<i>zailtzete</i>	<i>zaailtzetzen</i>	<i>zazte</i>	<i>zindazten</i>
<i>due</i>	<i>ziñuzten</i>	<i>dailtze</i>	<i>zaailtzien</i>	<i>daz(t)e</i>	<i>zazten</i>

³⁰ Orreaga Ibarak *Ultzamako hizkeraren deskribapena* lanean (Nafarroako hizkerak, 1997, 107) horrela dio: “... eta etorri aditz sintetikoaren ordez, heldu-ren forma perifrastikoa darabilte”.

³¹ EDH 1987, 235: “Ekialdeko ereduaren bezala, ‘etorri’ aditzaren sintetikoak erabili beharrean ‘eldu naiz’, ‘eldu da’, ‘eldu gara’ e.a. erabiltzen ziren, aezkeraz, lapurteraz, nafarrera beheeraz e.a. bezala; ‘nator’ e.a. ez ziren erabiltzen”.

JAKIN		EDUKI		ERAMAN	
orain	lehen	orain	lehen	orain	lehen
da(z)kit	<i>na(z)kien</i>	dauket(dauzkit)	<i>noken</i>	dama(zki)t	<i>niama(zki)n</i>
da(z)kik/n	<i>ya(z)kien</i>	daukek/n	<i>yoken</i>	dama(zki)k/n	<i>yiama(zki)n</i>
da(z)ki	<i>za(z)kien</i>	dauke(dauzki)	<i>zoken</i>	dama(zki)	<i>ziama(zki)n</i>
da(z)kiau	<i>giñe(z)kien</i>	daukou	<i>giñoken</i>	dama(zkia)u	<i>giama(zki)n</i>
da(z)kizu	<i>ziñe(z)kien</i>	daukezu	<i>ziñoken</i>	dama(zki)zu	<i>ziñiama(zki)n</i>
da(z)kizte	<i>ziñe(z)kiten</i>	daukezte	<i>ziñoketen</i>	dama(zki)zte	<i>ziñiama(zki)ten</i>
<i>da(z)kite</i>	<i>za(z)kiten</i>	<i>daukete(dauzkite)</i>	<i>zoketen</i>	<i>dama(zki)te</i>	<i>ziama(zki)ten</i>

EZAUGARRI SINTAKTIKOAK

Sintaxiari eskaintzen zaion ataltxo honetan, Irañetako hizkeran erabiltzen diren menderagailu nagusiak baino ez ditut jasoko. Ez diet, beraz, erreparatuko hizkera gehienetan komunak diren ezaugarri sintaktikoei eta, esan bezala, soilik aipagarriak iruditu zaizkidan menderagailuak edo egindako elkarritzketetan agertu direnak, besterik gabe, hartuko ditut kontuan. Honetaz gain, artikulua honen hasieran aipatu ditudan lanetan agertzen diren esaldi mota ezberdinak ere atal honetan agertuko dira era berean.

- Nominalizazio, esaldi konpletibo eta zehar galderi dagokienez, oso ohi-koak ditugu *irinteran* erabiltzen diren menderagailuak: *-(e)la*, *-t(z)etik*, *-t(z)ie* (-t(z)ea), *-tia* (-t(z)era), *-n*, ...

San du torko dela. (Esan du etorriko dela).

Eztiau san eros duule. (Ez dugu esan erosi dugunik). Bistan da ez duela gure informanteak *-(e)nik* menderagailua erabiltzen esaldi nagusia ezezkoa denetan, behin eta berriz horretaz ohartarazi badugu ere.

“... beti eraman guinuzquiela bere Senoan, ...”. (... beti eraman gintuela bere Senoan, ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49; 60)

Meize ereitetik utzi duu. (Artoa ereitetik utzi dugu).

“... mundu ontan da imposible guc contatcie: ...”. (... mundu honetan da imposible guc kontatzea: ...). (Gastesiren sermoiak FLV 49; 62).

“Ezta asqui ni baiñ illcie irregatic?” (Ez da aski ni behin hiltzea higitik?). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).

Txakurrai egunien bein bakarrik maten zakiok jatia. (Txakurrari behin bakarrik ematen zaiok jatera).

“..ez dakit bizik den do il zen, ..” (..ez dakit bizirik den edo hil zen, ..) (SAT, 19).

“Beste emacume baten gatic dio Aita Francisco Bencioc; nola egundu cen iru egunes ecin libratus aurra atrabestuzaquion medios”. (Beste emakume batengatik dio Aita Franzisko Benziok; nola egundu zen hiru egunez ezin libratuz haurra atrabesatu zitzaion medioz). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 62).

“Ona nola Marie Santisimec socorritcen dituen bere debotoac trance estuetan”. (Hona nola Maria Santisimak sokorritzen dituen bere debotoak trantze estuetan). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 62).

- Erlatibozko esaldietan, ohiko menderagailuak erabiltzen dituzte Irañetan: *-(e)n, -(e)neko, ...*
In dukena eztuk aski! (Egin duana ez duk aski!).
Ai, ze ikusten duten! (Ai, zer ikusten dudan!) (SAT, 19).
“Marie Santisimec asco senticendu len ona, eta onen devotoa cena, guero gaiztotcies, baño alare eztu desamparatcen bere devotoa hizanducena”. (Maria Santisimak asko sentitzen du lehen ona, eta honen debotoa zena, gero gaiztotzeaz, baina hala ere ez du desanparatzen bere debotoa izandu zena). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58).
“Sn. Lucas Evangelistac, esatendigu jesus jaioceneco misterioan; ...”. (San Lukas Ebanjelistak, esaten digu Jesus jaio zeneko misterioan; ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 60).
“... nere onrrara dedicaturic, edo consagraturic dagon bat?”. (... nere ondrara dedikaturik, edo konsagraturik dagoen bat?). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58).
- Denborazkoen artean, ondorengoak jaso ditugu: *partizipioa + eta, partizipioa + ondorien, partizipioa + orduko, partizipioa + eta gero, -enien (-enen), arik eta ... artian* (harik eta ... artean).
Afaldu ta guatzia joan giñen. (Afaldu eta ohera joan ginen).
Afaldu ondorien guatzia joan giñen. (Afaldu ondoren ohera joan ginen).
“Emen plaza bota zenien eta erriko itxe aiek erre zeenien ordubedenok euskeras”. (Hemen plaza bota zenean eta herriko etxe haiek erre zirenean, orduan denok euskaraz) (SAT, 18).
“... ; eta eguin dezac penitencie ariqueta nere imagiñeren escuen icusi artian”. (...; eta egin ezak penitentzia harik eta nire imaginaren eskuan ikusi artean.) (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
“...: Aigeru San Gabrieleac anunciacionien Jesu Christoren Encarnaciono Misterioa”. (...: Aingeru San Gabrieleak anunziatu zionean Jesus Kristoren Enkarnazioko Misterioa). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 60).
“Arnestoc esancituen oracioac eguiñorduko guelditucen Pestia”. (Arnestok esan zituen orazioak egin orduko gelditu zen Pesteia). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
“Karga etorri eta gero beste bi eske ...”. (EAEL II, 169).
“Au eguiñ orduco bela libratucen bat erere trabajuric gabe”. (Hau egin orduko berehala libratu zen batere trabajurik gabe): (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 62).
- Moduzko esaldietako menderagailurik erabilienak, berriz, ondorengoak: *-n bezela (-n bezala), -n moduben (-n moduan), -n modukue (-n modukoa), -n gisekue (-n gisakoa), -(e)la medio, -tus/-dus (-tuz/-duz) ...*
“...; nola egunducen iru egunes ecin libratu ...” (...; nola egondu zen hiru egunez ezin libratuz ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 62).
Tor yeizen bezela/moduben joan ber kueiz! (Etorri haizen bezala/moduan joan beharko haiz!).
Eros duun modukue/gisekue duk ori! (Erosi dugun modukoa/gisakoa duk hori!).
Ustes esan duten, au ola duk! (Ustez esan duten, horrela duk!, esan dute-naren arabera).

- “... *tentu gaiztoat dela medio eta gustu ciquin bat dela medio?*”. (... tentu gaizto bat dela medio eta gustu zikin bat dela medio?). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 57).
- “*Eta gure Venteroa juan cequion illcera gaubien bere ogatcera beste asco-requi eguinzuen bezela; ...*”. (Eta gure Benteroa joan zitzaion hiltzera gauean bere ohera beste askorekin egin zuen bezala; ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
- Biak bakarrik dakien bezela daille!* (Berak bakarrik dakien bezala dabil!).
- Hurrengoak perpaus konparatiboen menderagailuak ditugu: *ba- bezelexen* (ba- bezalaxe), *-n bezela* (-n bezala), *aiñeko* (adinako), *-ooko* (-agoko), ...
Zuen itxie gurie aiñekue duk! (Zuen etxea gurea adinakoa duk!).
Aundiyokuek e joan ttuk! (Handiagokoak ere joan dituk!).
Iñok eztakien bezela ibiltzen da! (Inork ez dakien bezala ibiltzen da!).
Iñok ezpalaki bezelexen! (Inork ez baleki bezalaxe!).
 - Helburuzkoen menderagailu zenbait ditugu ondorengoak: *-t(z)eko*, *-t(z)iatik* (-t(z)eagatik), ...
Sue itteko san dik amak! (Sua egiteko esan dik amak!).
Gaubien atratziatik in ttu lan guziek! (Gauean ateratzeagatik egin ditu lan guztiak!).
“Apezak esan zien ez joateko iñore eta ez sinisteko ortanfi (Apezak esan zien ez joateko inor ere eta ez sinisteko horretan!). (SAT, 19).
“... gero malda pastu an, e ... liso liso gelditzeko eskuatzeko bikorra”. (... gero malda pasatu han, e ... liso-liso gelditzeko eskuratzeko bikorra). (EAEL II, 169).
“Malla eta botatzen giñun ookio egoteagatik ...”. (Maila eta botatzen genuen hobekiago egoteagatik). (EAEL II, 169).
“Geo azendako kamak eta ongarri iteko neguan asi egunero lau kaetada orbel ekarri”. (Gero aziendako kamak eta ongarri egiteko neguan kasi egunero lau karretada orbel ekarri). (EAEL II, 169).
“...: eta an icustenducanian preparadi illceco”. (...: eta han ikusten duanean prepara hadi hiltzeko). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
“Gazte gaiztoa, edo malvadoa baduc atrebimentue profanatzeco gauce bat ...” (Gazte gaiztoa, edo malbadoa baduk atrebimentua profanatzeko gauza bat ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58).
 - Kausazko perpausak burutzerakoan menderagailu ugari erabiltzen dituzte *irinteran*: *-lakos* (-lakotz), *nola ... -n*, *zengati ... -n* (zerengatik ... -n), *-t(z)ies* (-t(z)eaz), *bait-*, ... (*e*)ta, *-n medios*, ...
Eztuk egiye izen ber san dutelakos bestiek! (Ez duk egia izan behar esan dutelako besteek!).
Yake emen gauden kus taun! (Harik eta hemen gauden ikus dezagun! Gaztelaniako partikula erabiltzen dutelarik).
Nola ezten torri, daule/geldittu deile afaldu bai! (Nola ez den etorri, da-goela/gelditu dadila afaldu gabe!).
Tor nitzen zengati enuken gosaiyik! (Etorri nintzen zerengatik ez nuen gosairik!).
Tor nitzen gosaiye enukelakos! (Etorri nintzen gosaria ez nuelako!).

- “Marie Santisimec asco senticendu len ona, eta onen devotoa cena, güero gaiztotcies, ...”*. (Maria Santisimak asko sentitzen du lehen ona, eta honen debotoa zena, gero gaiztotzeaz, ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58).
- “... cergatic cen Marie Santisimaren Devotandie”*. (...; zergatik zen Maria Santisimaren Debotandea). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58-59).
- “... nola baicen Marie Santisimeren devoto andie”*. (... nola baitzen Maria Santisimaren deboto handia). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
- “... ta errosayoa erreztatzen joan ber giñela ta, joan giñen”*. (... eta errosarioa erreztatzen joan behar ginela eta, joan ginen). (SAT, 19).
- “...; nola egunducen iru egunes ecin libratu aurra atrabesatuzaquion medios”*. (...; nola egondu zen hiru egunez ezin libratuz haurra atrabesatu zitzaion medioz). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 62).
- “... au baite gure redentorie eta Salvatorie ...”* (...; hau baita gure erre-dentorea eta Salbadorea ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 61).
- Baldintzazko perpausetako menderagailuak, aldiz, beste hauek ditugu: *ba-...*, *-t(z)ekotan*, *-t(z)ekos* (-t(z)kotz), *-s kio* (-z gero), ...
Lixto tortzen bayeiz joango gettuk elkarrekin! (Listo etortzen bahaiz joango gaituk elkarrekin!).
Ittekos, in biuk ongi! (Egitekoz, egin behar duk ongi!).
Ittekotan, in biuk ongi! (Egitekotan, egin behar duk ongi!).
Lanien asis kio, egun guziko! (Lanean hasiz gero, egun guziko!).
“Bada itces nai hizandu balure oculatcie, ecin oculatu zuquien bere aurpeguico señalie”. (Bada hitzez nahi izandu balu ere okultatzea, ezin okultatu zukeen bere aurpegiko seinalea). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 58).
“Zuc daitu baninyuzu Tentacio oyetan etcinēn allegatuco tranceortara”. (Zuk deitu baninduzu Tentazio horietan ez zinen ailegatuko trantze horretara). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).
 - Esaldi kontzesiboak burutzeko, *beño* (baina), *-agatik* eta *neiz* (nahiz) ... dira menderagailu erabilienak:
Gizon ixille zan, beño izketan bein asis kio ... (Gizon isila zen, baina hizketan behin hasiz gero ...).
Ik sanagatik eztuk orrela izendu gauze! (Hik esanagatik, ez duk horrela izandu gauza!).
Neiz berandu torri, inko ttik bere lanak! (Nahiz berandu etorri, egingo dizikik bere lanak!).
 - Kontsekutiboetan, *ain ... Ø/-la* (hain ... Ø/-la) eta *aunbeste ... -la* (hainbeste ... -la) dira gehien erabiltzen diren menderagailuak eta Gastesiren sermoietan *alaco modus ... hece ... -ela* (halako moduz ... ezen ... -(e)la):
Ain aundiye yuen urrittitik ikusten yuen/-la! (Hain handia huen urrittitik ikusten huen/-la!).
Aunbeste diru zokek itxien ez tela kaitzen! (Hainbeste diru zeukak etxean ez dela kabitzen!).
“... Jauna, yaque³² berorrec aiñbeste misericordies usatcen duen nerequi, naidut mudatu nere vicimodu gaiztoa: ...” (...; Jauna, yake berorrek hain-

³² Gogoratu kausazko perpausetan ere jaso dudala partikula bera, egungo informatzaileak eman didan moduan. Beraz, XIX. mendearen erdialdean egun gertatzen den erdalkeria berbera ikus dezakegu.

beste miserikordiaz usatzen duen nirekin, nahi dut mudatu nire bizimodu gaiztoa: ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 59).

“*Eta gure animen salvacioa alaco modus procuratuzuela (...) hece instiartatic asita beti eraman guiñuzquiela bere senoan, ...*” (Eta gure arimen salbazioa halako moduz prokuratu zuela (...) ezen instante hartatik hasita beti eraman gintuela bere senoan, ...). (Gastesiren sermoiak, FLV 49, 60).

IRAÑETAKO LEXIKOARI HURBILKETATXOA

Ondorengo zerrenda honetan hirurehundik gora izan dira espreski galdetu eta jaso ditudan hitzak. Guztiek Sakanako hizkeretan bizirik diraute eta gehienak burutzapen berberak ditugu herri guztietan, ondorioetan esaten dugun moduan. Dena den, badira zenbait burutzapen propio edo gutxienez Sakana erdialdeko eta Burundako hizkeretatik bereizten direnak: *zarrapo* (apo), *ertsi* (itxi), *ortots* (ostots, trumoi), *erbil* (egurrezko mailu handia), *ensalada* (leka), *antxur* (intxaur), *daus* (ezer), *zarre* (eskuare), *aski* (nahiko), *ortzillere* (ostiral), ...

BATUA	IRAÑETA	BATUA	IRAÑETA
Gurdiaren endaitza uztarrarian lotzekoa	<i>Bartugela</i>	Artzai nagusi	<i>Altsei, -ye</i>
Hankarte	<i>Iztepe, -ie</i>	Askari egin	<i>Merendatu</i>
Antzigar	<i>Lantxurde, -ie</i>	Astearte	<i>Asterte, -ie</i>
Ardiaren ongarria	<i>Altxerri, -ye</i>	Asteazken	<i>Astizken, -a</i>
Gurdiaren aldeko	<i>Urtol, -a</i>	Astelehen	<i>Astelen, -a</i>
Lur zatiak hausteko zurezko mailu handia	<i>Erbil, -lle</i>	Astigar	<i>Astiger, -rra</i>
Uztarri gaineko larrua	<i>Buruko larru, -e</i>	Atera	<i>Atra</i>
Basoko txerritokia	<i>Txabola</i>	Atertu	<i>Atertu</i>
Eskuare handia	<i>Zarraundi, -ye</i>	Atze	<i>Atze</i>
Eskuarea	<i>Burruntzarre, -ie</i>	Atzea	<i>Atzokota</i>
Belaun mutur	<i>Belaunkozkor, -rra</i>	Atzera berriz	<i>Berriz</i>
Gurdiko zamari eusteko tresna	<i>Bidur, -rre</i>	Atzimurka	<i>Atximixke</i>
Leka	<i>Ensalada</i>	Aulki	<i>Alki, -ye</i>
Abisatu	<i>Abixetu</i>	Aurpegi	<i>Aurpei, -ye</i>
Adats	<i>Kalfar, -rra</i>	Aurre	<i>Aurre</i>
Agindu	<i>Aindu</i>	Axuri	<i>Axui, -ye</i>
Ahari	<i>Ari, -ye</i>	Azkenean	<i>Azkenien</i>
Ahariko	<i>Ariko, -ue</i>	Azkura	<i>Asenei, -ye</i>
Aho	<i>Ago, -ue</i>	Aztal	<i>Pantorille</i>
Ahotz	<i>Agotz, -a</i>	Babarrun	<i>Alubi, -ye</i>
Ahuntz	<i>Auntz, -e</i>	Bakailao	<i>Abaaxu, -be</i>
Aingira	<i>Aingere, -ie</i>	Baratxuri	<i>Babatxui, -ye</i>
Aitagarreba	<i>Aittaiarreba</i>	Baraurik	<i>Baruik</i>
Aitona	<i>Aittun, -e</i>	Barre	<i>Irri, -ye</i>
Aitzur	<i>Eltzur, -rre</i>	Barru	<i>Barnen</i>
Akain	<i>Akein, alkapar</i>	Bart	<i>Bart</i>
Aketz	<i>Apote, -ie</i>	Bartz	<i>Partx, -a</i>
Alta	<i>Alta</i>	Bederatzi	<i>Bedratzi</i>
Alu	<i>Potxotxa</i>	Bederatzihun	<i>Bedratzitanaun</i>

BATUA	IRAÑETA	BATUA	IRAÑETA
Amabirjina	<i>Amabirjin, -ñe</i>	Begibakar	<i>Oker, -rra</i>
Amaginarreba	<i>Amaiarreba</i>	Beheko su	<i>Beko su, -e</i>
Amaraun	<i>Amume</i>	Behi	<i>Bei, -ye</i>
Amona	<i>Amin, -ñe</i>	Behoka	<i>Biyoka</i>
Apo	<i>Zarrapo, -ue</i>	Behor	<i>Bior, -rra</i>
Arantza	<i>Erren, -a</i>	Bekain	<i>Bekein, -ñe</i>
Ardi	<i>Ardi, -ye</i>	Bekoki	<i>Kopeta</i>
Arkakuso	<i>Arkakoso, -ue</i>	Belardi	<i>Larre, -ie</i>
Armiarma	<i>Irmimau, -be</i>	Berehalaxe	<i>Beleixe</i>
Arrano	<i>Zaizuri, -ye</i>	Berna	<i>Bernazaki, -ye</i>
Arrautza	<i>Arrotze, -ie</i>	Berrehun	<i>Berraun</i>
Arrazoi	<i>Arrazo, -ue</i>	Bidali	<i>Bieldu</i>
Bigantxa	<i>Beiko, -ue</i>	Eultzi	<i>Aultzi, -ye</i>
Bigarren platera	<i>Errazio, -a</i>	Eultzia egiteko tresna	<i>Estrasi, -ye</i>
Bihar	<i>Biyer</i>	Euri	<i>Auri, -ye</i>
Bihurri	<i>Biurri, -ye</i>	Eutsi	<i>Eldu</i>
Bikortu	<i>Bikortu</i>	Ezer ez	<i>Daus ez</i>
Biluzik	<i>Bilixkorri, -e</i>	Ezkaratz	<i>Ezkatze, -ie</i>
Birabarki	<i>Billabarkin, -ñe;</i> <i>txastamin, -ñe</i>	Ezpara	<i>Tabano, -ue</i>
Biribil	<i>Borobil, -lle</i>	Fidatu	<i>Fiyetu</i>
Birigarro	<i>Biligarro, -ue</i>	Gabirai	<i>Txapelatx, -a</i>
Bisuts	<i>Bisuts, -e</i>	Gailur	<i>Kaldor, -rra</i>
Bizkar	<i>Bizker, -rra</i>	Gaizki	<i>Gezki</i>
Bostehun	<i>Bostanaun</i>	Galeper	<i>Baseper, -rra</i>
Dilista	<i>Txingil, -lle</i>	Ganbara	<i>Safei, -ye</i>
Edan	<i>Eran</i>	Garo	<i>Lixtor, -rra</i>
Ede	<i>Ere, -ie</i>	Garondo	<i>Kasko, -ue</i>
Eduki	<i>Idiittu</i>	Gatzagi	<i>Gatzakoi, -ye</i>
Eguzki	<i>Iruzki, -ye</i>	Gazura	<i>Gazure</i>
Ehun	<i>Aun</i>	Gela	<i>Kuarto, -ue</i>
Ekaitz	<i>Ortots erauntsi</i>	Gela aurea	<i>Ganbara</i>
Eltxo	<i>Eltxo, -ue</i>	Gider, kirten	<i>Kinder, -rra</i>
Elur	<i>Elur, -rre</i>	Giltzurrun	<i>Giltzurrin, -ñe</i>
Elur bustia	<i>Elur busti</i>	Goilara	<i>Koxta</i>
Elur pilota	<i>Elur pillota</i>	Goroldio	<i>Goroldi, -e</i>
Emakume	<i>Andri, -ye</i>	Gorosti	<i>Koosti, -e</i>
Enara	<i>Zirrin, -ñe</i>	Gurpil	<i>Errueda</i>
Endaitz	<i>Andeitz, -e</i>	Habia	<i>Kafi, -ye</i>
Erakutsi	<i>Akusi</i>	Hegabera	<i>Egalmakur, -rre</i>
Eraman	<i>Eman</i>	Herenegun	<i>Erenio</i>
Erantzun	<i>Kontestatu</i>	Herenegun etzitik	<i>Erenio atzeti</i>
Erbinude	<i>Ergonide, -ie</i>	Hirurehun	<i>Irutanaun</i>
Erlaino	<i>Erleño, -ue</i>	Hodei	<i>Leño, -ue</i>
Errain	<i>Errein, -ñe</i>	Hodeitsu	<i>Kalma</i>
Erren	<i>Maiki, -ye</i>	Idabihur	<i>Bigo, -ue</i>
Errun	<i>Erron</i>	Ilar	<i>Iller, -rra</i>
Esan	<i>San</i>	Idiburuko	<i>Ipuruko, -ue</i>
Eskailera	<i>Eskallera</i>	Iel	<i>Iyel</i>
Eskuare	<i>Zarre -ie</i>	Igande	<i>Iyende, -ie</i>

BATUA	IRANĒETA	BATUA	IRANĒETA
Esnatu	<i>Itzerri</i>	Igela	<i>Iyel, -a</i>
Esne	<i>Esene, -ie</i>	Igeltsero	<i>Kisuskil, -lle</i>
Espetxe	<i>Karzela</i>	Igeltsu	<i>Kisu, -e</i>
Etxe	<i>Itxe</i>	Igerikatu	<i>Aingiriken iin</i>
Etzi	<i>Etzi</i>	Igo	<i>Iyo</i>
Etzidamu	<i>Etziamo</i>	Igurtzi	<i>Iurtzi</i>
Euli	<i>Auli, -ye</i>	Ihes egin	<i>Ies in</i>
Ihintz	<i>Intz, -e</i>	Lizundu	<i>Luzinddu</i>
Ikuilu	<i>Estrabi, -ye</i>	Lokartu	<i>Loak artu</i>
Ilar	<i>Illarraka</i>	Lokatz	<i>Loi, -ye</i>
Ilargi	<i>Illargi, -ye</i>	Lore	<i>Flore, -ie</i>
Inaute	<i>Iyote, -ie</i>	Lumatu	<i>Plumetu</i>
Inoiz ez	<i>Sekule</i>	Mahats zatia	<i>Mats arrama</i>
Inor ez	<i>Iñor ez</i>	Mamia	<i>Gaztanbera</i>
Intxaur	<i>Antxur, -rre</i>	Marigorringo	<i>Katalin, -ñe</i>
Inurri	<i>Txingurri, -ye</i>	Marrubi	<i>Malubi, -ye</i>
Irausi	<i>Irausi</i>	Masail	<i>Maseil, -lle</i>
Ireki	<i>Zabaldu, irii</i>	Masusta	<i>Martuts, -e</i>
Isun	<i>Denuntzie</i>	Matrail	<i>Maseil, -lle</i>
Itaurreko	<i>Iturriko, -ue</i>	Matxinsalto	<i>Martinsaltalai, -ye</i>
Ito	<i>Itto</i>	Mika	<i>Pikaratza</i>
Itogin	<i>Itxuxur, -e</i>	Miru	<i>Gabilan, -a</i>
Izara	<i>Mendere, -ie</i>	Moztu	<i>Moztu, ebagi</i>
Jaiki	<i>Zutittu, jegi</i>	Nazka	<i>Nazka</i>
Jantzi	<i>Beztittu</i>	Neurri	<i>Naurri, -ye</i>
Jarri	<i>Paatu</i>	Ohartu	<i>Guartu</i>
Joan	<i>Juan</i>	Ohe	<i>Guatze, -ie</i>
Joare	<i>Fale, -ie</i>	Oilagor	<i>Ollagor, -rra</i>
Jorrai	<i>Eltzur txiki</i>	Oilategi	<i>Ollotei, -ye</i>
Jorratu	<i>Jorratu</i>	Oilo	<i>Ollo, -ue</i>
Kakagura	<i>Kaka itteko gogo, -ue</i>	Oilotesi	<i>Ollotasi, -ye</i>
Kare	<i>Galtzin, -ñe</i>	Okil	<i>Kukil, -lle</i>
Kazkabar	<i>Kaxkar, -rra</i>	Olio	<i>Oliyo, -ue</i>
Kikara	<i>Kijera</i>	Ongarri	<i>Ongarri, -ye</i>
Kilker	<i>Grillo, -ue</i>	Ongi	<i>Ongi</i>
Kirikino	<i>Triku, -be</i>	Orain	<i>Ooin</i>
Koinata	<i>Goñata</i>	Ordaindu	<i>Paatu</i>
Koinatu	<i>Goñadu, -e</i>	Ordots	<i>Ordots, -a</i>
Kokots	<i>Okotz, -a</i>	Orkatil	<i>Ankakoskor, -rra</i>
Laister egin	<i>Laster in</i>	Orpo	<i>Opo, -ue</i>
Kosk egin	<i>Ozka in</i>	Ortzadar	<i>Jainkuan paxa</i>
Laino	<i>Leño, -ue</i>	Ospel	<i>Uspel, -a</i>
Landare	<i>Planta</i>	Ostegun	<i>Ostegun, -e</i>
Larru	<i>Larru, -e</i>	Ostiral	<i>Ortzillere, -ie</i>
Larunbat	<i>Larunbeta</i>	Pagatxi	<i>Faatxi, -ye</i>
Lasai	<i>Lasai, trankil</i>	Pago	<i>Fago, -ue</i>
Laurehun	<i>Lautanaun</i>	Peseta	<i>Pezta</i>
Laurogei	<i>Lautanogei</i>	Pinu	<i>Pino, -ue</i>
Lavandera	<i>Pinpintxori, -ye</i>	Piztu	<i>Ixiin</i>
Lehen bailehen	<i>Lenbelen</i>	Plater	<i>Plater, -a</i>
Lehen(ago)	<i>Len(oo)</i>	Potto	<i>Pottiko, -ue</i>

BATUA	IRAÑETA	BATUA	IRAÑETA
Lehengusu	<i>Lenguse, -ie</i>	Putre	<i>Arrano, -ue</i>
Liztor	<i>Erlamin, -ñe</i>	Sabai	<i>Tetxo, -ue</i>
Saguzar	<i>Gauxirrin, -ñe</i>	Zilbor	<i>Txirbola</i>
Sakabanatu	<i>Barratu</i>	Zimitz	<i>Txintxe, -ie</i>
Sargori	<i>Sargoi</i>	Ziraun	<i>Ziraun, -e</i>
Saski	<i>Jaski, -ye</i>	Zirrikitu	<i>Zirritto, -ue</i>
Seiehun	<i>Seitanaun</i>	Zizare	<i>Txintxere, -ie</i>
Siri-miri	<i>Lankar, -rra</i>	Zohi	<i>Zotol, -a</i>
Sokor	<i>Kozkor, -rra</i>	Zortziehun	<i>Zortzitanaun</i>
Su ingurua	<i>Supin, Sustepara</i> (<i>atzea</i>)	Zumar	<i>Zugar, -rra</i>
Sugandila	<i>Sumendil, -lle</i>	Zaindari	<i>Aingurei, -ye</i>
Sugegorri	<i>Sube, -ie</i>	Zakil	<i>Pitilin, -ñe</i>
Sukalde	<i>Sukelde, -ie</i>	Zapaburu	<i>Kakapittol, -a</i>
Susara	<i>Susea</i>	Zaunka egin	<i>Zaunke</i>
Teilatu	<i>Telletu, -e</i>	Zazpiehun	<i>Zazpitanaun</i>
Tipula	<i>Tipule</i>	Zekor	<i>Txekor, -rra</i>
Trumoi	<i>Ortots, -a</i>	Soro	<i>Soro, alor³³</i>
Txahal	<i>Beiko, idiko</i>	Ur	<i>Ur, -e</i>
Txantxangorri	<i>Lepagorri, -ye</i>	Urrun	<i>Urritti</i>
Txantxigorropil	<i>Txantxigor</i>	Urte bateko ahuntza	<i>Txegei, -ye</i>
Txarrantxa	<i>Txarrantxa</i>	Urtxintxa	<i>Kattagorri, -ye</i>
Tximeleta	<i>Mariposa</i>	Uso	<i>Uso, -ue</i>
Tximista	<i>Iñuztur, -e</i>	Uztarri	<i>Uzterri, -ye</i>
Akuilu	<i>Txiste</i>	Ugari	<i>Neiko, -ue</i>
Txistu	<i>Fixtu, -e</i>	Ukolondo	<i>Okolondo, -ue</i>
Txita	<i>Txite</i>	Ukitu	<i>Kuttu</i>
Txitxirio	<i>Txitxiyo, -ue</i>	Untxi	<i>Koneju, -be</i>
Txiza	<i>Pixe</i>		
Txizagura	<i>Pixe itteko gogo, -ue</i>		
Txolarre	<i>Paatexoi, -ye</i>		

ONDORIOAK

Irañetako euskarak, *irinterak*, ikuspegi dialektologiko batetik aztertu eta deskribatu ondoren eta bertan agertu zaizkigun ezaugarriak kontuan hartuz, Sakana erdialdeko hizkerarekin bat egiten duela ondoriozta daiteke, jarraian azalduko ditugun bilakabide eta burutzapenek erakusten digutenaren arabera. Horrela beraz, Sakana erdialdeko hizkeraren barruan sartzekotan, nafarrera euskalkikoa dela baieztatu dezakegu, era berean.

Sakana erdialdean ohikoak diren bilakabideak ageri dira barra-barra Irañetako hizkeran, bai arlo fonetiko-fonologikoan (mugatzailea lexemari el-

³³ Horrela jaso du Patxi Salaberrik *Nafarroako hizkerak* liburuan (1997, 73): “Sakanako lehen ‘alorra’ Irañetan ageri da, hemen ‘soro’z lagundurik, bestela ulertuko ez balitz bezala (auzalorzaroko soroa, NTEM-XII, 175); Murginduetan, aldiz, euskara galdu baino lehen ‘alorra’ ibiltzen bide zen (Etxaide, 72. zkia)”. Toponimian besterik ez da egun erabiltzen. Timoteo Berazak *auzelarzar* esan digu dela aipatu toponimoa.

kartzerakoan sortzen diren zenbait burutzapen³⁴; asimilazio aurrerakaria; hasierako /e/ bokalaren itxiera; /o/ > /u/ / __n bilakabidea; /eu/ > /au/ diptongo irekiera; /e/ > /a/ / __r bilakabidea; zenbait metatesi, aferesi eta sinkopa; palatalizazioa; /h/ kontsonantearen lekukotza erakusten duen /g/-ren agerpena), bai morfologikoan (deklinabideko prolatibo, destinatibo, soziatibo, ablatibo eta instrumentalaren morfemak; forma bereziak erakusleetan; zenbatzaile, konparatibo, superlatibo eta gehiegizko maila adierazten duten morfemak; aditzondoak; adizkiak; NN_i erako aditz laguntzailearen -ki- erroa; partizipio analogikoak; NN_k erako aditz laguntzailearen forma aferesidunak; etorkizuna burutzeko -EN morfema; ...), bai sintaxi eta lexiko mailakoak (menderagailu sorta eta lexiko ia berbera baliatzen da Sakana erdialdean eta Irañetan).

Honen guztiaren ondorioz, Irañetako euskara Sakana erdialdeko beste herrietakoan antzekoa dugula baieztatu daiteke, eta errotazismoa azaltzen duten burutzapen zenbaitek, besteak beste, erakusten digute, continuum geolektalaren teoria jarraituz, Arakilgo euskararekin eta hego-goinafarrerarekin egiten zuela lotura.

Burutzapen berbera izan nuen lehenago *Erizkizundi Irukoitzaren* emaitzak (F.L.V. 83, 2000) aztertu nuenean:

“Irañetako ia emaitza guztiak ere jasoak daude EI-n, hasieran esaten nuen moduan, eta harriztekoa bada ere, esan daiteke era egokiagoan islatzen dutela, ez soilik bertako hizkera, baizik eta Etxarri eta Uharteko hizkerak berak ere bai. Eta esaten dudana hauxe, Irañetako emaitzetatik hartutako hurrengo zerrendan ederki asko ziurta daiteke: bier (behar), luzie (luzea), egiye (egia), iyysi (ihesi), iyo (eho), zille (zila), zazpiñe (zazpina), ixildu (isildu), balitze (balitz), litzeke (litzateke), izen (izan), zorris (zorriz), bildur (beldur), utsa (ura), eskube (eskua), eskuben (eskuan), beres (berez), maistrube (maistrua), aite (aita), ereitten (ereiten), lizer (lizar), soñeko (soineko), loittu (lohitu), laurek (lauak), lautaneun (larehun), auri (euri), eskuten (eskuetan), erraiye (erraia), loye (lohia), gaurti (gaurtik), lendi (lehendik), noizti (noiztik), orduti (ordutik), txikitati (txikitatik), aspalditi (aspalditik), gaurrate, etxeti (etxetik), amaana (amarena), senarraana (senarrarena), amaandako (amarentzat), Irundi (Irundik), emendi (hemendik), Madrildi (Madrildik), Eibarti (Eibartik), Baraibarti (Baraibartik), gizonai (gizonari), nun (non), nok (nork), baaki (badaki), balaki (baleki), ezpalaki (ez baleki), eyaiz (ez haiz), dakit (zait), dazkit (zaizkit), auskera (euskara), auskeleerri (Euskal Herri), aixkide (adiskide), guzi (guzti), Donostiko (Donostiako), geyo (gehiago), leze (leize), bizitze (bizitza), ilbeltza (urtarrila), otsail, martxo, apiril, maietza, garagartzaro, garilla, agoztu, urrie, lastaille, azaro, abendu, xarri (eseri), aittun (aitona), irmiar-mau (armiarma), kunkun (apo), ...

Bestalde, bereziki aipagarriak iruditzen zaizkit herri honetako emaitzen artean agertzen diren *ortzegun* (ostegun) eta *ortzilere* (ostirala), honek erakusten baitigu justu Sakana erdialdearen ekialdean (Uhartar-Arakilen ondorengo herria dugu Irañeta ekialdetik) hasten dela errotazismoa agertzen” (*FLV* 83, 2000, 71).

³⁴ Soilik /o/ eta /u/ bokalez amaitutakoan dira ezberdinak bilakabideak: $-o + -a(k) > -ua(k)$ / $CV_{-goi}C_{-}$ eta $-o + -a(k) > -ue(k)$ / $CV_{+goi}C_{-}$; $-u + -a(k) > -ue(k)$.

Sakana erdialdean, berriz, horrelakoak ditugu bilakabide hauek: $-o + -a(k) > -ua(-uek)$ eta $-o + -a(k) > -ue(k)$; $-u + -a(k) > uba(-ubek)$ eta $-u + -a(k) > -ube(k)$.

TRANSKRIBAKETA

Transkribaketaren lehen zatia SAT lanean (2001) egindako grabaketaren zati bat baino ez da. Bertan Timoteo Beraza Goldarazena eta Esteban Ieregi Uharte ageri zaizkigu hainbat galdera erantzunez *irinteraz*.

Timoteo: Bueno, lagunak, e, au iru urte ni beño zarrao, bestelas ortxe, beño elakarreki gaztetan oso gutxi bizi gaa. Ni beti kanpuen da au re bai kasik eta, gaztetan, gu aparte ibilli gaa biyok.

Galdetzailea: Zergatik kanpoan? Zer bizimodu eduki duzue?

Timoteo: Zergati ni serbitzuben ta au rebai. Ni Egiarretan. An auskias ezen itten.

Esteban: Ni Azantzán, an e auskeras ezen itten daus e. Gero Ekaién, Ekaién e ibillitu nintzen ... Oai denbora gutxi ya emen auskeras ta gu auskeras itte bie-rrien fuera emendi.

Timoteo: Nik auskera ikesi nuén zazpi urte bitterte, bueno amar urte bitterte. Geo amar urtetati aurria beti bizi neiz erderas dena. (...) Bai, e, ne adiñeti bera asi eskeos oso gutxi, e! Emen auskeras, betiko auskera inko die zerak, Pedrotxok ta Dominikak ta oixek. Oyék dena auskeras itxién, lenuo ta oin ta beti. Oyék beti auskera itxién irurek! (...) Ezta beste itxeik auskeras itten dotena. (...) Auskeras, e, guk emen iketan kasi beti, Juxtooki ta oyeki (...) Oneki, e, i Exteban, beti iketan.

Galdetzailea: Eta zuen arteko kintako emakumek eta euskeaz eitten zuen?

Timoteo: Ez, gutxi (..) Emen Simona ta, gu adiñeko Simona, ta gero Gerbasie Atxiñenekua ta oixe, Amarkonekua ta oyék. A, Florentina i adiñekua duk.. Emakometan emen ...

Galdetzailea: Ta gaur egun Irañetan zenbat euskaldun zar geratuko da?

Timoteo: Oin denak euskaldunek, gaztiek. Ta guk ez du(g)u entenditzen oyeki. Gu elkarreki bai, beño oyeki batez!

Esteban: Abuelo! Ola ezta esaten. Bestaldia ta, nik esaten dutena etzakitek, ta beek esaten dutena nik etzakiet, asiske nada! Ola ezta esaten, ta ola deez ta.

Timoteo: Nik ez tet auskeras itten. Neen illobak eta emen daitze beti ta beek e erderas itten dute, auskeras mintzatuko balee elkarreki, beño beti erderas! (...) Ze, auskeras emen? (...) Gio Urruntzenien, e, galdu yuen zengati andriyek ezakiken auskeras.

Ondorengo zatia Timoteo Beraza Goldarazeni zuzenean jaso diogu 2004ko abuztuaren 18an, bere etxeko sukaldean. Bertan, modu laburrean bada ere, Irañetan Amabirjina Lizarragabengoko neska gazte bati nola agertu zitzaion kontatzen digu.

Bai, bai, jende pilloat tortzen zen Irañetaa amabirjiñe ikustia. Asieran, esto, lenbiziko aldiyen, Lizerrengoko neskato bati agertu men zakion. Neskato ure, serbitzia etorriye zen Irañetaa ta egun betien amabirjiñe ikusi zuela san zuen. Orti aurria beste askotan agertu men zakion bee onduen jende asko zuela. Bai, jende asko eoten zen beraaki amabirjiñe ikusi neyen. Oitako batien, Españako gerra beño iruun bet urte lenoo amabirjiñek san men zion “un baño de sangre” gertatu bear zuela. Eta beste batien, beix, jende asko ta asko ziola bertan, amabirjiñek eskatu zion Yabarko neskak kantatzeko. Bai, garai artan fama aundiye zoketen Yabarko neskak, oso ongi kantatzen zuten eta. Beño guk saten giñuen, ze demontre inporta dakio amabirjiñai Yabarko neskak o beste eozeiñek kantatzie? Asiske apezak dee saten zuen olako gauzak ez zeela siñistu bier! ...

BIBLIOGRAFIA

- CAMINO, Iñaki. *Hego-nafarrenaren egituraz*. FLV 94, 2003.
- COROMINAS, Joan. *Breve diccionario etimológico de la lengua castellana*, Gredos, 2000.
- ERDOZIA MAULEON, Jose Luis. *Erizkizundi Irukoitza Sakana erdialdean*. FLV 83, 2000.
- *Sakana erdialdeko euskara*. Nafarroako Gobernua, 2001.
- *Bakaikuko hizkera*. FLV 90, 2002.
- Euskal dialektologiaren hastapenak*, UEU, 1987.
- IBARRA, ORREAGA. *Ultzamako hizkeraren deskribapena* (Nafarroako hizkerak), 1997.
- Sakanako ahozko tradizioa*, lan argitaragabea.
- SALABERRI, Patxi. *Arabako mugako nafar hizkeren inguruan* (Nafarroako hizkerak), 1997.
- ULAIAR, Eugenio. *Juan Miguel Gastesiren bi “Mayatzeko Illabetia: Mariaren Illabetia” (Marie Santisimeren devocia) 1850-1854*. FLV 49, 1987.
- YRIZAR, Pedro. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Euskaltzaindia, 1992.
- ZUAZO ZELAIETA, Koldo. *Burundako hizkera*, ASJU XXVIII (297-364), 1994.
- *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, 2003.

LABURPENA

Aurreko urteetan burututako zenbait artikuluren (Bakaikuko hizkera, Lizarragabengoko euskara) bidetik jarraituz, oraingoan Irañetako euskarari erreparatu diot. Sakana haranean euskara bizirik duten herrien artean muga egiten du Irañetak ekialdetik, hurrengo herrian, Ihabarren, duela urte gutxi batzuk hil baitzen azken euskaldun zaharra. Irañetako bertako euskara, bestalde, ez dugu batere osasun onean, adin handiko bospasei pertsona baino ez baitira dagoeneko hura baliatzen dutenak. Horregatik eta urte gutxi barneko irinteraren soinua galtzeko zorian izango garelako, seguru asko, saiatu naiz artikulua honetan hizkera honen ezaugarri nagusiak jasotzen.

RESUMEN

Siguiendo el camino iniciado en años anteriores en varios artículos (Bakaikuko hizkera, Lizarragabengoko euskara), ha sido objeto de estudio en esta ocasión el euskara de Irañeta. Irañeta es actualmente frontera oriental entre las localidades que mantienen vivo el euskara autóctono en el valle de Sakana, puesto que hace ya algunos años falleció el último de estos hablantes de la siguiente localidad, Ihabar. Por otra parte, el euskara autóctono de Irañeta no goza de buena salud y son únicamente cinco o seis hablantes los que lo mantienen vivo. Por ello y porque, casi con seguridad, en los próximos años perderemos el sonido de este habla, he intentado recoger en este artículo sus características más notables.

RÉSUMÉ

Nous allons poursuivre le chemin entrepris il y a quelques années, par le biais de plusieurs articles (*Bakaikuko hizkera*, *Lizarragabengoko euskara*), par une étude de la langue basque d'Irañeta. Irañeta est actuellement frontière orientale entre les localités qui maintiennent le basque autochtone vivant dans la vallée de Sakana, puisqu'il y a déjà quelques années que la dernière personne qui parlait cette langue dans la localité suivante est décédée. Par ailleurs, le basque autochtone d'Irañeta ne jouit pas d'une excellente santé et il n'y a plus que cinq ou six personnes qui le maintiennent en vie. C'est pourquoi, et surtout parce que les sons de cette langue vont certainement finir par disparaître dans les années qui viennent, que j'ai essayé de recueillir dans cet article ses caractéristiques les plus importantes.

ABSTRACT

Following the path taken in several articles (*Bakaikuko hizkera*, *Lizarragabengoko euskara*) from previous years, the Basque language used in Irañeta is now to be studied. Irañeta currently represents the easternmost border of the area in which the local version of the Basque language from the Valley of Sakana is maintained, the last remaining speaker from the next village, Ihabar, having died some years ago. Unfortunately, the Basque of Irañeta is none too healthy either, it being kept alive by just five or six speakers. For this reason and because doubtlessly over the next few years we shall lose the sound of this speech, I have tried to isolate its main characteristics in the present article.